

ASTELEHENKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-07-18
ASTELEHENA
330. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



"Ondo hastea garrantzitsua da, baina partidu bakar batekin ez da nahikoa"

Aitor Mendizabal | Pilotaria | 24

Gazte Bulegoa da oportetarako gune bisitatuena uztailean | 16



Aretxabaletarrek gogoz hartu dituzte Portasolgo jaiak | 15



Koko Jean Davisen ahotsak txunditu eta bete egin zuen Monterron | 29

Antzuolako konpainiako buruzagia eta mairua, zaldi gainean.



Emozioz betetako alardea aurtengoa

Urtetan alardean parte hartu izan duten bi herritar omendu dituzte. Beste behin, kale bazter eta balkoi denak bete dituzte ikusleek | 12

JOSETXO ARANTZABAL

Laster irtengo da Garabideren aditu ikasketen lehen promozioa

18 indigena dabilta ikasketa horiek egiten | 2

Gaur jakingo da nor izango den Angiozarko auzo alkatea

Emaitza parekatuak izan ziren atzoko hauteskundeetan | 4

Zabaletaren Lola BMW autoa berriro ere nagusi Gatzagan; etxean geratu dira sari nagusiak | 22

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



16"-ko LCD telebista

ETA ZURETAKO BADA?

► Zoaz 21. orrialdera

Laster irtengo da Garabideren aditu ikasketen lehen promozioa

- ▶ 18 indigena dabilta Jatorrizko Hizkuntza eta Identitate Garapenerako aditu titulurako ikasten
- ▶ Garabide elkartearen aurtengo emaitza garrantzitsu bat da; bestea, liburu eta DVD berriak

LEIRE KORTABARRIA | ESKORIATZA

Garabide elkarteak bi emaitza ikusgarri, bereziki garrantzitsu eman ditu aurtengo: batetik, lehenengo urtez, Lanki institutuarekin eta Mondragon Unibertsitatearekin batera, eta Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzaren Sailak finantzatuta, Jatorrizko Hizkuntza eta Identitate Garapenerako Aditu titulua ematen dabil, eta Hego Ameriketako nazionalitateetako 18 indigena dabilta hori egiten. Hizkuntza gutxiak berreskuratzeko lanean dabilta guztiak. Garabidek badaroa bost urte Ameriketako hizkuntza-komunitate txikiekin elkarlanean, eta urtero, Garabideren truke programaren barruan egonaldiak egiten dituzte hemen herri horietako ordezkariak. Aurten, Mexiko, Ekuador, Kolonia, Guatemala, Bolivia eta Wallmapuko (nazio maputxea) kideak dabilta, plus horrekin: udan aditu tituluko saioak bukatuko dituzte, eta udazkenean proiektua aurkeztuko du bakoitzak. Hori eta gero, aditu titulu homologatua eta ofiziala izango dute.

Denetarikoa gaiak landu dituzte: hizkuntza aniztasuna, hizkuntza eta nortasuna, hizkuntzen ekologia, soziolinguistika... Hori, teoria aldetik; baina euskara normaltzen garrantzia izan duten eragileekin ere egon dira –Xamar, Joxerra Etxeberria, Xabier Mendiguren, Maialen Lujanbio, Porrotx...– eta bisita batzuk egin dituzte –Goiena, Euskaltzaindia, ikastolak...– Gero, ikasle bakoitzaren beharrei erantzuten ahalegindu dira Garabidekoak, bere proiekturako behar zituen bisitak eta ekintzak antolatuz.

Euskara batua sortu zenekoa

Beste mugarri garrantzitsu bat ipini berri du Garabide elkarteak:

hilaren 5ean aurkeztu zuen, Euskaltzaindian, euskalgintza modernoaren esperientziaren gaineko bigarren liburua eta DVDa: *Hizkuntzaren estandarizazioa. Euskararen berreskuratzea II*. Euskaraz, espainolez, ingelesez eta frantsesez dago lana, eta *www.garabide.org* webgunetik jaits daiteke, doan, helburua delako hizkuntza-komunitate minorizatuarekin konpartitzea eta haiek tresna gisa erabili ahal izatea. Garabide elkarteak Elena Herrartek eta Oihan Zubizarretak azaltzen dizkigute lan horren nondik norakoak: "Euskalgintzaren esperientzia modu orokor baten eta ikuspegi zabal batetik lantzen gabilta lan horietan. Bigarren honek arlo konkretu bat jasotzen

du: euskara batuaren sorrera eta euskara berreskuratzeko eta normaltzeko batuak izan duen rola eta garrantzia". Gaineratzen dutenez, "euskararen inguruan liburu asko daude, baina honetan oso modu zuzen, sintetiko eta didaktikoan azaltzen da guztia". Mota horretako bakarrenetarikoa da Garabideren lan berria.

Hirugarren zenbakia prestatzen dabilta, eta euskarazko komunikabideen gainean jardungo dute. Gero, hezkuntza, kultura... aztertuko dituzte.

Kooperanteak kultura arloan

Garabide elkarteak bi lan-ardatz dauzka, Elena Herrarte kidearen hitzetan: "Gure estrategia nagusia



Maiatzaz geroztik daude Debagoienean aditu titulurako ikasten dabilta 18 indigenak. A



Huhezin, saio teoriko baten. | GARABIDE ELKARTEA

formazio saioak dira. Orain arte, horren barruan, truke programak egin ditugu, hiru hileko egonaldiekin. Denetara, azken hiru edo lau urteotan 60 bat laguni eman diegu formazioa. Aurten, jauzi kualitatiboa egin dugu, aditu titulu homologatua sortuta, Mondragon Unibertsitatearekin batera. Eta beste ardatza dira kooperazio proiektuak, hiztun-komunitateekin eurekin. Horren barruan, Ekuadorren, orain bi urte egon ginen telebista kitxua baten sorrera bultzatzen, formazio teknikoa

eta hizkuntza-aholkularitza ematen eta hango komunikatzaileak prestatzen".

GKE baten antzekoa da Garabide, zentzu horretan –izan ere, Mundukidetetik sortu zen–: "Ohiko kooperazioak egiten duena egiten dugu, hango proiektuak lagundu; baina gure espezializazioa gai identitario eta kulturaletan dago. Kultura arlo berri samarra da kooperazioan, baina Euskal Herriak badu aberastasun bat, esperientzia hori landuta daukako, eta hori eskaintzeko moduan dago", esaten dute Elenek eta Oihanek.

"Sekulako harrera dugu"

Garabiden hiru kide daude, eta elkartearen inguruan lagun, laguntzaile, erakunde... asko daude. Garabideko kideek "koordinazio eta zubi lana" egiten dute, bai Ameriketako eta hemengo erakunde artean, bai hemengo eragileen artean ere, ekintzak antolatzeko. "Eragina bi aldekoa da: hemengo erakundeak inplikatzeko diren neurrian, jasotzeko asko izango dute herri indigenetako kideek", esaten dute Elenek eta Oihanek. Eta, zentzu horretan, "edozein" erakundetara joan direnean, "sekulako harrera" izan dute: "Motibazio handia izan du hemengo jendeak lan hau egiteko; ikusten dute egin beharreko lana dela, eta gertu daude beti euren ekarpena egiteko", azaltzen dute. Hala, Eusko Jaurlaritzaren, Mondragon Unibertsitatearen, AEKren, Topagunearen, Goienaren, Uzeiren... lankidetzak izan dute.

Denondako moduko liburuak, doan eta lau hizkuntzatan

Euskararen normaltze prozesuaren esperientzia modu didaktikoan, zuzenean eta sintetikoan batzen hasi zen Garabide elkarteak, eta dagoeneko bi emaitza eman ditu ahalegin horrek: *Euskararen berreskuratzea*.

Hizkuntzak biziberritzeko gako batzuk eta Hizkuntzen estandarizazioa. *Euskararen berreskuratzea II*. Denon eskura dago Interneten. Lehenengo hartzaileak Ameriketako herri indigenak izan arren, euskaraz ere badaude, hemen ere arrakasta



Lehenengo lanaren azala.



Bigarren lana, berriena.

bitxiak diruditen, baina bere garaian eztabaida bizia piztu zuten gaiak daude, hala nola euskara batuak h-a izan behar zuen edo ez. Azterketa sakonak izan ziren, eta oso muturreko iritziak zeuden: adibidez, h-a "marxista" eta "herriaren betiko asmo onen kontrakoa" zela

esaten zuenik ere bazen; aldekoek esaten zuten h-a "ezinbestekoa" zela Ipar Euskal Herriko hiztunendako, eta Hegoaldea "makurtu" egin behar zela horretan. Azkenean, erdibide batetik egin zuen Euskaltzaindiak.

handia izan zuelako lehenengo lanak.

Hizki "marxista"

Bigarren lanean, euskara batua zelan sortu zen, eta haren aurreko eta geroako egoerak kontatzen dira. Gaur egun oso



Argazkian, Eskoriatzako Udalak egin zien ongietorria. | AMAIA TXINTXURRETA



Elena Herrarte eta Oihan Zubizarreta, Huheziko klaustroan. | LEIRE KORTABARRIA

ELENA HERRARTE ETA OIHAN ZUBIZARRETA | GARABIDE

"Indigenek ikusten dute hizkuntza txiki batek ere beste estatus bat lor dezakeela"

Hiztun-komunitate txikietako kideek elkar topatzen dute Garabiden.

Ameriketako hizkuntza gutxituak euskara orain 50 urte zegoen antzera daudela esan daiteke?

Elena Herrarte: Hizkuntza aldetik, bai, baina aldeak ere sakonak izan daitezke. Guatemalan, Bolivian, Txilen... hizkuntza txiki asko daude egoera tamalgarrian. Hiztun komunitateak haiek biziberritzeko gogoia dauka, baina prozesuak abiatzen daude.

Oihan Zubizarreta: Hizkuntzaren kezkak eta erronkak hemen orain 50 urtekoak dira. Baina garaiek aurrera egin dute, eta kezka berriak daude: adibidez, zelan integratu teknologia berrietara? Zelan aprobetxatu horien abantailak? Lan handia egiten dabil-tza. Beraz, guk ditugun erronka berberak dira, baina kezka politikoa behar-bada guk lehen genuena da.

Baina egin beharreko bidea –adibidez, estandarizaziorako– denendako berbera izan daiteke?

E.H.: Interes berezi bat dago hizkuntza batua sortzeko, horrek ahalbidetzen duelako hezkuntzara, komunikabideetara... sartzea. Baina hor barruan hartu beharreko erabakiak komunitate bakoitzak hartu beharko ditu.

Zer da eurek hemendik eramaten duten gauzarik garrantzitsuenak?

E.H.: Batetik, ikusten dute hizkuntza txiki batek beste estatus bat lor dezakeela, hori egin daitekeela. Bestetik, sekulako motibazioa hartzen dute hemen; ikusten dute herriak hartu behar duela inizatiba.

O.Z.: Garabidek kontzientziak piztu eta bidelagunak sortu nahi ditu. Denon erronka berbera da, euskararena ere bai, eta komunitateok elkarrekin batzeko plazak sortu gura ditugu.



Ikasgelatik kanpo, hainbat bisita esanguratsu egin dituzte, denak euskararen inguruan. | GARABIDE ELKARTEA

"Goiena beti doa pauso bat aurretik"

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko epaimahaia

GOIENAK IRABAZI DU 2011KO RIKARDO ARREGI SARI NAGUSIA



RIKARDO ARREGI
KAZETARITZA SARIA

Zuei esker.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



Behin baino gehiagotan, ilarak sortu ziren botoa emateko, Angiozarko saloian, atzo. | GOIATZ ARANA

Gaur jakingo da nor izango den Angiozarko alkatea

Hiruzpalau herritar parekatuta geratu ziren atzoko hauteskundeetan; ezohiko batzarra egingo dute gaur

GOIATZ ARANA | BERGARA

Hauteskundeak egin zituzten atzo Angiozarren, auzo-alkatea eta batzarkideak -19- aukeratzeko. %64ko parte-hartzea izan zen -auzune batzutan %100ekoa-. Atzoko emaitzek erakusten dute, ordea, alkate izateko lehen eta bigarren lekuetan geratu zirenen arteko boto diferentzia oso txikia dela; are gehiago, bigarren gera-

tu denak aurrena geratu denak baino dezente boto gehiago lortu ditu batzarkide izateko. Horregatik, ezohiko batzarra egingo dute gaur: "Boto denak zenbatuta, beste pare bat auzotar ere nahikoa parekatuta daude lehen biek eta gaur hartuko dugu erabakia guztion artean", esan zigun Jose Anjel Mikeo alkate ohiak. Batzarkide izateko botoa



jaso dutenei dagokienez, berriak dira dezente: "Hori seinale ona da. Angiozarren urte gutxi eraman arren, bertakotu direla erakusten du horrek". Eguenean eratuko da batzarra eta San Migel jailetako domekan egingo da kargu-hartzea.

12 urteko esperientzia

Mila Elortza izan da azken 12 urteotako Angiozarko alkatea eta iritsi zaio agur esateko momentua; halaxe jasotzen du euren araudiak: pertsona berarentzako nahikoa denbora dela, haize berriak ondo datozela eta hori dela epe-muga. Elortzak alkate izateari utziko dio, beraz, baina lanean jarraituko du, berriei laguntzen.

Bere esanetan, oso garrantzitsua da auzoetan alkatea eta batzarkideak izatea: "Euskal Herri-rik Madrilgo zentralismoa kritikatzeko dugu, baina antzeko zerbait gertatzen da herrietan, ahaztu egiten dira auzoetatik. Hemen, gainera, demokrazia erabatekoa da: ez dago zerrendarik, denok gara hautesle eta hautagai".

Alkate izandako garaitik etxebizitzak egin izana azpimarratu du, auzoan ixteko arriskuan zegoen eskola txikia bizirik mantentzeko adina haur izatea eragin duelako, besteak beste. Aurrera begira jarrita, bestalde, Internetarako edota mugikorretarako estaldura egokia izatea azpimarratu du, AHTrekin duten eronka ahaztu gabe, noski.

Aitzindari

"Franco hil ondoren, Angiozarren egin ziren lehen hauteskunde demokratikoak; ausartak izan ginen", kontatu digu Elortzak. Eta Debagoiengan era honetako bozak egiten dituen beste auzorik ezagutzen duen galdetuta, ezetz erantzun digu.

Goiena telebista berriz sintonizatu behar da, ondo ikusten ez den kasuetan

San Migeleko antenan egindako hainbat aldaketan ondorioz, Goiena telebista ondo ikusten zuten hainbat etxetan, ez dute ondo ikusten orain. Kasu horietan, berriz sintonizatu behar da: telebistak berriro aurkitu beharko du Goiena telebista, automatikoki -edo nor berak, eskuz-.

Antenan egindako egokitzapenek Bergaran, Antzuolan eta Elgetan dute eragina. Beraz, moldaketa egin beharko dute herri horietako bizilagunek, baldin eta seinalea Lurreko Telebista Digitalaren bitartez jasotzen badute eta orain arte Goiena telebista ondo ikusten bazuten.

MUK hitzarmena sinatu du Southern Cross Unibertsitatearekin

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien fakultateak lankidetzak hitzarmena sinatu du Australiako Southern Cross Unibertsitatearekin; horri esker, bateko eta besteko ikasleek lankide duten atzerriko unibertsitatean burutu ahal izango dituzte ikasketak.

Southern Cross surfaren munduko epizentroetako bat da eta surfaren industriako profesionalak prestatzeko unibertsitate-ikasketak abian jartzen aitzindari. Bestalde, Surf eta Irristatze Kiroletan marketing eta management aditu-ikastaroaren hirugarren edizioan abian jarri du MUK; irailera arte eman dezakete izena interesatuek.

Bi hildako, eguen gaueko Aretxabaletako istripuan

Arrasate eta Eskoriatzakoak ziren; gidatzen zituzten autoek elkar jota galdu zuten bizia

G.A. / E.A. | ARETXABALETA

Mikel Pagaldai Agiriano -eskoriatzarra, 38 urte- eta Enrique Aguilar Casas -arrasatearra, 48 urte- dira eguen gaueko Aretxabaletako auto-istripuan zendutako bi gizonetakoak; bakarrik zihozten, nor bere autoan.

Errotaetxe baserri alboan -kanposantu inguruan- gertatu zen ezbeharrak, 21:10ean, gidatzen zituzten autoek -Seat Exeo eta Ford Focus- elkarren kontra jota. Lekukoek diotenez, "talka gogorra" izan zen; "Eskoriatzatik Arrasaterantz zihozan ibilgailua aurreratzen ari zen eta aurrez aurre jo zuen Arrasateko burdin artean harrapatuta geratu ziren eta suhiltzaileek atera behar izan zituzten, baina ordu-rako hilda zeuden. Gorpuak

23:30ak pasatxo jaso zituzten eta Donostiako auzitegiko patologia zerbitzura eroan zituzten, epailearen aginduz.

Ertzaintza argibide bila

Istripuaren gaineko argibideak emango dizkien lekukoak nahi ditu Ertzaintzak eta, horretarako, Gipuzkoako trafikoko unitateko telefono zenbakia jarri du herritarren eskura: 943 53 91 25.

Txirrindulari bat, zaurituta

Zapatu eguerdian, bestalde, auto batek txirrindulari bat harrapatu zuen Bergaran, Candy lantegitik gertu. Arrasateko Ospitalera eraman zuten ambulanzian baina, zauri arinak zituela-eta, laster bidali zuten etxera.



Pedro Guridi Pedrotxo eta Jon Agirre, gaztetxe atarian. | JOSETXO ARANTZABAL

"Gaurko gazteek, gehienek, bizimodu erraza topatu dute"

Kartzelak suposatzen duenarekiko kontzientzia askorik ez dago, bi preso ohientzat

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Zer da kartzela? izenburupean, hitzaldia eman zuten Pedro Guridi Pedrotxo eta Jon Agirre preso ohiek bariku arratsaldean Arrasateko gaztetxean, eta 30 bat gazte batu ziren bertan euren bizi-

penak ezagutzeko. "Nahiko genuke horrelakorik kontatu behar ez izatea baina...", esan zigun kartzelan 30 urte egin dituen Jon Agirre aramaioarrak. Edozein kasutan, biek ala biek, interesgarri jo zuten ekimena, euren

iritziz gaurko gazteek bizimodu errazegia topatu dutelako eta kartzelak suposatzen duenarekiko kontzientzia askorik ez dutelako, nahiz eta badiren salbuespenak. "Jende bat bizi egiten da eta kito, ez daki bere inguruan zer gertatzen den ere", zioen espetxean 21 urte igarotako Pedrotxo arrasatearrak, ezkor.

Zer da kartzela? galdera euren eginda, Agirrek zioen duela mende batzuk galeretan edukitzeen zutela jendea preso, kateekin lotuta hanketatik hil arte, eta "zibilizatzen" joan garen heinean, kartzelatan "ezkututzen" dutela sistema honetan "soberan" dagoen jendea. Pedrotxok gazteei ideia bat garbi uztea gura zuen: "Kartzela zigor bat baino gehiago da. Nahi dutena da damututa ez dagoen jende bat erdi-damututa ateratzea eta kaleko jendeari beldurra sartzea. Hori eurentzako lan egitea dela esaten dut nik eta horretara jotzen dutela beste modu baten gure borroka zapuztea lortzen ez dutenean".

Barruan geratutako lagunekin oroitzea da gogorrena eurentzat, baina gogoan dituzte elkarrekin igarotako une onak ere.

Oñatiko Komite Internazionalistak Las Conchitaseko familien irtenaraztea salatu du

Bailaran 7.723 euro jaso dira azken bi urteotan komunitate horri laguntzeko

MIRIAN BITERI | OÑATI

Oñatiko Komite Internazionalistako bozeramaile Pablo Miguelek salatu du azken bi urteotan Chiapaseko iparraldean dagoen Las Conchitas izeneko kanpamenduan bultzatutako proiektua bertan behera geratu dela. Azaldu du talde paramilitar bat dela horren errudun, han bizi ziren bost familia aterarazi dituelako.

Miguelek aipatu du 33 laguni eragin diola irtenarazte hori, eta horietako 23 adingabeak direla. Salatu du "ezer barik" geratu direla, 80 ardi, 400 oilo, zapatuak egiteko makina industrialak, lau ihintzagailu eta bi eguzki plaka lapurtu dizkietela. Horretaz gainera, aipatu du arto, frejol eta txilez landatuta zeuden 15 hektareak ere galdu izan dituztela.

Zaurituak daude

Komite Internazionalistak kritikatu du gobernu erakunderik ez dela hara joan gertatutakoa ikertera. Honakoa esan du: "Ez diete kasurik egiten; arduratuta daude han animaliak, laborantzak eta ondasunak dituztelako. Gainera, zaurituak ere badaude".

Esan bezala, uztailearen 3ko gauean gertatu zen eraso, arma-

tuta zegoen lagun taldea "tiro egiten" kanpamendura sartu zenean. Miguelen arabera, errepidera lotuta atera zituzten, eta hilko zituztela mehatxatu zituzten, itzultzen baziren.

Urteak daramatza Komite Internazionalistak Las Conchi-

tas komunitateari laguntzen. Azken bi urteotan, Oñati eta Arrasateko Udalek, Kutxa eta La Caixa kutxek eta herritarrek 7.723 euro jaso dituzte laguntzeko. Miguelek salatu du horri esker egindako lana "ezerezean" geratu dela.



Chiapaseko iparraldean dagoen kanpamendua. | KOMITE INTERNAZIONALISTAK

Zahar egoitzen kudeaketan irtenbideak eskatu dizkio PSE-EEK Diputazioari

Udalekin duen zorrari aurre egiteko eskatu dio; tartean, Oñati, Bergara eta Arrasatekoak daude

M.B. | ARRASATE

Alderdi sozialistak bi hilabeteko epean, zaharren egoitzen kudeaketaren harira, udalekin duen zorra kitatzeko exijitu dio Gipuzkoako Diputazioari, eta sei hilabeteko epean egoerari irtenbidea emango dion proposamena aurkezteko.

Batzar Nagusietako Politika Sozialen gaineko batzordeko bozeramaile Susana Gartzia sozialis-

tak salatu du egoera "jasanezina" dela, eta hori dela-eta, sail horretako diputatu Ander Rodriguez arrasatearrari eskatu dio horren harira sortutako negoziazioak berriz abiarazteko.

Zortzi milioi euroko zorra dagoela nabarmendu du, eta gaineratu du zerbitzua etetea saihesteko hainbat udalek euren gain hartu behar izan omen dutela berez euren den konpetentzia

bat. Gartzia esanetan, Gipuzkoako 16 udalerrri daude egoera horretan; beste batzuen artean, Oñatiko, Bergarako eta Arrasateko zaharren egoitzak.

Gobernuan edozein egonda ere

Horren harira, honako hau salatu du Gartziak: "Gipuzkoako Diputazioak, gobernuan egon dena edozein izanda ere, ez du hirugarren adinari buruzko konpetentzia bere gain hartu".

Udal horiendako defizit hori bere gain hartzea ezinezkoa dela, eta hainbatek auzitegiara jotzeko asmoa dutela iragarri du, Diputazioak zaharren egoitzen kudeaketa bere gain hartu dezan. Alderdi sozialistak "aurpegia emango" duela iragarri du, eta dagoeneko proposamen bat aurkeztu du Politika Sozialen gaineko batzordean.

Baserrietan lapurretak ekiditeko kanpaina jarri dute abian

M.B. | ARRASATE

Ertzaintza prebentzio kanpaina berria jarri du egunotan martxan, baserrietan lapurretak ekiditeko. Esperientzia pilotu hori oraingoz Durango eta Gernika aldean egingo dute, eta hitzaldi informatiboak eskaintzean eta diptikoak banatzean datza. Horretaz gainera, Ertzaintza patruilen eta bizilagunen arteko komunikazioa bultzatu nahi dute.

Baserrietan banatutako diptikoetan gogorarazten da ez fidatzeko ez ohiko aitzakiak eta galderak egiten dituztenekin. Adibide moduan jartzen dituzte 'galdu egin naiz', 'lan bila nabil' edo 'hemen inguruan bizi al zara' bezalako esaldiak. Horren harira, ohartarazi dute baserriarrek hitz egin nahi dutela informazioa lortu eta gero bertan edo inguruko baserrietan lapurreta egi-

teko, eta hori dela-eta, inguruan bizi direnen gaineko informazioa ez emateko gomendatu dute

Horretaz gainera, etxean egonda ere, leihoak eta atek itxita izatea agintzen du diptikoak. Horrekin batera, gogorarazten dute 112 larrialdietako telefono zenbakia uneoro dagoela eskura, eta komeni dela auto-matrikulak eta pertsonen deskribapena gordetzea.

Dorleta Kortazar | Arrasateko Gazte Bulegoko teknikaria

"Modan dago etxe trukaketarena. Probatzen duena pozik bueltatzen da"

Aterpetxeen eta ikasleen txartela egitera eta informazio bila doaz egunotan gazte bulegora

M.B. | ARRASATE

Udako oporren harira dauden abantailaz egin digu berba Arrasateko Gazte Bulegoko teknikari Dorleta Kortazarrek.

Zeren bila joan dira gazteak?

Txartelak egitera etortzen dira asko. Bide batez, tokien gaineko informazio liburuxka eta gidekin egindako Bidaiateka fisikoa dugu bulegoan, eta hori eskatzera ere etorri dira. Gainera, Interneten, webgunean Bidaiateka ataltxo badugu.

Zer nolako txartelak egin daitezke gazte bulegoan?

Askotariko gauzatarako daude. Aterpetxeen txartela dago batetik. Ez da deskontu txartela, aterpetxeetan lo egin ahal izateko balio du. Gazteen txartela atera daiteke; 30 urte bitartekoei eskainita dagoena. Adin horretatik gorakoena helduen txartela izango litzateke, eta familia ere bada, 16 urtetik beherako seme-alabak dituztenendako.

Taldekoa ere badago, erroldatuta dauden taldeak edo aurretan, lehen aldiz, koadrilaka ateratzeko aukera dago. Horren arabera, prezio ezberdinak daude. Urtebeteko iraupena dauka, eta tramitazioa oso erraza da.

Zelan atera daitezke?

Eskaera orri bat bete behar da, bulegotik pasatuta edo Internet bidez eskuratu daitekeena. Jarraian, ordainketa egin behar da bankuan; Internet bidez ere egin daiteke. Ziurtagiriarekin bulegotik pasako dira ondoren, eta txartela jaso.

Zelako abantailak ditu horrek?

Hainbat aterpetxeetan lo egiteko ezinbestekoa da txartela izatea; aterpetxeetan, dena dela, txartela egiteko aukera dago. Baina, atzerriko aterpetxeetan garestiago irtetzen da ateratzea. Hortaz, plana aurreikusita baldin badugu, gazte txartela izanda, 2,5 euroren truke lortuko dugu.

Zertan datza ikasleen txartela?

12 urtetik gorakoendako da. Mundu osoan erabili daiteke,



Dorleta Kortazar | GOIENA

garraio, museo eta ostatuetan deskontuetan egiteko. Gazte txartela dutenei biengatik ez diete deskontua egiten. Ikasle ziurtagiria eta argazkia behar da hori tramitatzeko. Gainera, berdina da.

Osasun txartela izatea ere garrantzitsua da, ezta?

Bai, jende asko horretaz ahazten bada ere. Egia da Debagoiengan nahiko babestuta gaudela, kooperatibak direla-eta. Baina, kanpo daudenek, Europako Osasun Txartela lortzeko aukera dute. Bi urteko iraupena du, eta momentuan ateratzen da: Gizarte Segurantzaren bulegoetan egin behar da, lehen aldiz ateratzen badugu; bestela, Internetez egin daiteke. Bestalde, Europatik at doazenendako aseguru bereziak daude.

Ostatuen harira, bestelako aukerak ere badaude...

Hala da. Azkenaldian modan dago etxe trukaketa. Probatzen duena oso gustura bueltatzen da. Hainbat elkarte daude: www.hospitalityclub.org, www.intercambiodecasa.es eta www.couchsurfing.com, besteak beste.

"Lo egiteko txartela izatea ezinbestekoa da hainbat aterpetxetan"

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA XI. Saiakera saria


antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G. kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte

Tel.: 948 32 65 35
soltxate@pamiela.com
Arauk: www.pamiela.com



2011

Gaizkile informatikoeak telefono dei soil batekin egin dezakete iruzurra

AEBetan eta Erresuma Batuan asko zabandu da telefonozko iruzur bat, eta udan gurean hedatuko dela ohartarazi dute kontsumitzaile elkarteek

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Teknologia berriak iruzur eta lapurreta egiteko tresna gisa hartu dituzte gaizkileek azkenaldian. Azken asteotan, nonbait *boladan* dauden iruzurren gainean ohartarazten dabilta kontsumitzaileen elkarteak, eta iruzur horiek guztiak teknologia berriak erabilia egiten dituzte.

Horietako batekin, Ameriketako Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan, saiatzen diren kasuetatik %15etan lortzen dute euren helburua gaizkileek, eta gurean udan zabalduko dela uste dute kontsumitzaileek eta adituek.

Oso sinplea da: iruzurgileak telefonoz dei egiten dio biktimari, eta bere ordenagailu etxearen zerbitzu teknikitik deitzen duela esaten dio. Oso modu onean eta, itxuraz, hitz tekniko askorekin, ordenagailu horren seriean akatsa duen pieza bat dagoela eta egun batzuetarako ordenagailua etxetik eroan beharko diotela azaltzen dio. Bat-batean, ordea, beste konponbide bat egon daitekeela esaten dio ustezko teknikariak: webgune bat ei dago eta, handik, arazoa konponduko dion programa bat jaitsi dezake erabiltzaileak. Bide batez, iruzurgileak esaten dio biktimari ordenagailuaren garrantzia luertzeko eskaintza berezia duela, eta oso prezio txikia ematen dio. Horrela, biktimak erraz ematen du baietza, eta kreditu-txartelaren zenbakia ematen du.

Iruzurrak bi kalte mota egiten ditu: batetik, biktimak bere kreditu-txartelaren zenbakia ematen dio iruzurgileari; bestetik, esandako webgunetik programa jais-



Ordenagailua infektatzeko eta bertan ditugun datuak lapurtzeko modu asko dituzte gaizkileek. | JOSU TXINTXURRETA

ten badu, gordeta dituen gako eta informazio ekonomikoa kendu dion programa troiar batekin kutsatuko du ordenagailua.

Kontsumitzaileen elkarteek hauxe gomendatzen dute: ez eman banku-daturik, eta egiaztatu haiek esandakoa ordenagailuaren egilearen webgunean. Ziria sartu badiote, biktimak segituan kreditu-txartela ezeztatu beharko luke, eta iruzurra polizian salatu. Kontuan hartu behar da kreditu-txartelaren zenbakia nazioarteko mafien eskuetan eroriko dela, seguruenik.

Ostatu bila Interneten

Udako oporretarako apartamentu egokia bilatzeko Internetera

jotzen dute askok; iruzurgileek, horren jakinean, bide hori aprobetxatzen dute jendea engainatzeko. Hala, FUCI kontsumitzaile independenteen elkarteak esan du urtean alokairuen inguruan jasotzen dituzten kexa guztietatik erdiak oporretako apartamentuen gainekoak direla.

Honako oharrak egiten ditu, besteak beste: oso prezio txikia eskaintzen dutenekin ez fidatu; begiratu zenbatek alokatu duten lehenago apartamentu hori; informazio osoa eskatu; identifikatu daitekeen telefono zenbaki finoren bat eskatu; ez ordaindu alde aurretik kopuru osoa; aukeratu, txartel bidez ordaindu; eskatu eskaintzaileari bere NA edo

apartamentuari dagokion udal dokumenturen bat bidaltzeko faxez... Horiek dira garrantzitsuenetariko batzuk.

Google + aitzakiatzat

Interneteko beste iruzur batek oso modan dagoen Google + sare sozial berria hartzen du amu gisa. Sare sozial horretako kide izateko gonbidapena behar dela aprobetxatuta, Facebook-en aplikazio kutsagarri bat asmatu dute, eta 24 orduan 15.000 erabiltzailetik gora engainatu dituztela esan du BitDefender segurtasun enpresak. *Google Plus Direct Access* izena du aplikazio maltzurak, eta spama eta malwarea zabaltzeko erabiltzen dute.

Errenta aitorten kanpainan 126 milioi euro batu dira

laz baino gehiago batu da, 400 euroko kenkaria ez delako aplikatu aurten lehenengo aldiz

L.K. | ARRASATE

Ogasunak aurtengo errenta aitorten kanpainaren gaineko datuak argitaratu ditu. Aurten 126.315.719 euro bildu ditu, iaz baino 15 gehiago. 336.063.364 euro itzuli dira, eta horietatik, 7 baino gutxiago falta da itzultzeko. Saldoa, ohi bezala, negatiboa izan da: -209.747.645 euro. Bestalde, aurten, onartutako autolikidazio proposamenak aurkeztutako aitorten %49,7 izan dira, eta, aurreko urtean, %46,1 izan ziren. 224.066 autolikidazio proposamen bidali

ziren, hain zuzen ere zergadunen %54ei. Horietatik 193.588 aitorten onartu ziren.

Aitorten motari dagokionez, honela banatu dira: onartutako autolikidazio proposamenak, %49,7; mekanizatuak, %25,6; Internet bidezko aitortenak, %24; eta paperezkoak, %0,7.


Krisiaren eraginez, iaz eta aurten aitorten gutxiago aurkeztu dira (aurten, 438 gutxiago).

Aurten diru gehiago bildu da, 400 euroko kenkaria kentzeagatik eta aurrezpenaren errentei %20

(lehen %18) aplikatzeagatik. Bi horiek izan dira aurtengo kanpainako bi ezaugarri nagusi.

Hainbat motako salbuespenak

Beste honako ezaugarri garrantzitsuak izan ditu aurtengo kanpainak: salbuespen batzuk –askatasun eta eskubide demokratikoen defentsan eta errebindikazioan heriotza eta ezgaitasuna eragin duten lesioengatik kalte-ordainak, 2007ko abenduaren 26ko 52/2007 Legean, Memoria Historikoari buruzkoan, ezarritakoak; Europar Batasuneko edo Europar Espazio Ekonomikoko beste estatu kide batzuetan finkatuta dauden erakunde publikoek eta jardura sozial edo sorospeneko eta dirua irabazteko asmorik gabeko entitateek emandako sariak; lan etekintzat hartu dira langile autonomoek langabeziagatik eta jar-



duera uzteagatik jasotako prestazioak; kenkaria aplikatzeko aukera egon da 30 urte baino gehiago duten ondorengoengatik, baldin eta mendekoak badira; eta bi urtetik hiru urtera luzatu da ohiko etxebizitza saltzeagatik lortutako zenbatekoa berrinbertitzeko epea.

EHUko 2007ko tituludun gehienek lana topatu zuten

L.K. | ARRASATE

Euskal Herriko Unibertsitatean 2007an lizentziatu zirenetatik %79,2ek lana topatu zuten lizentziatu eta sei hilabeteko epean. Gainera, ikasketak amaitu eta lehenengo enplegua aurkitu arteko batez besteko epea hilabeteen murriztu da. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikarien kabineteak egindako azterlanaren ondorioetako bat da hori. Gemma Zabaleta sailburuak aurkeztu zuen.

Enplegu-tasa (%79,2) aurreko promozioarena baino 1,2 hamarren apalagoa da. Bestetik, jarduera-tasa %92,2koa da: hau da, hamar lizentziatutik bederatzik lan bila hasi ziren unibertsitate-titulua lortu eta segituan.

Enplegu Sailaren esanetan, "datuek argi eta garbi adierazten dute 2008ko azken hiru hilabetez EAEn gertatzen ari den atzeraldiaren eta enplegu-suntsipenaren hasiera". Izan ere, hain justu etapa hori hasi baino urte eta erdi lehenago lizentziatu zen esandako promozioa, eta aurreikuspen "onak" zeuden lana topatzeko.

Autonomoen %41ek IKTak darabiltzate gestiorako

L.K. | ARRASATE

2010eko udan Langile Autonomoen Araubide Berezian erregistratutako Euskadiko 178.158 autonomoetatik (estatuko guztizkoaren %5,7), %41ek ekipamendu informatikoa dauka –ordenagailua, PDA edo Smartphone– bere negozioa kudeatzeko, Espainiaren batez bestekoa %48 izanik; horietatik, denek dute Interneterako sarbidea, eta %47ek webgune propioa dauka; te Espainiako batez bestekoak dira %74 eta %36, hurrenez hurren. Datu horiek Industria eta Berrikuntza Sailak eman zituen, eta Fundetec fundazioak egindako txosten baten ondorioak dira. Langile autonomoa informazioaren gizartean aztertu dute, hain zuzen ere.

Txostenaren hirugarren edizioa da, eta Hego Euskal Herriko eta Espainiako autonomoek egindako 3.500 inkestan dago oinarritua, horietatik 160 Euskadikoak izanik. Langileak askotariko sektoretakoak ziren: automobilgintza, merkataritza, eraikuntza...

Aniceto Masferrer | 'Giza eskubideak eta segurtasuna terrorismoaren aurkako borrokan' proiektuaren zuzendaria

"Azken urteetan askatasunaren izenean astakeria asko egin dira; lotsa sentitzen dut"

- ▶ Masferrerek argi du Euskal Herrian inposaketarik gabeko elkarrizketa behar dela
- ▶ Terrorismoaren aurka egiteko arazoaren sustraiak ulertu behar direla dio irakasleak

ASIER ALKORTA | OÑATI

Aniceto Masferrer (Girona, 1971) Valentziako Unibertsitateko irakaslea da eta *Giza eskubideak eta segurtasuna terrorismoaren aurkako borrokan* proiektua zuzentzen dihardu gaur egun. Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen egon zen joan den astean, terrorismoaren eta giza eskubideen gaineko kongresuan parte hartzen.

Zelan ikusten duzu gaur egun Euskal Herriak bizi duen egoera?

Denaren gainetik, konfiantzatik eta uste onetik abiatuz, nik uste dut ona izango litzatekeela elkarrizketarako hurbiltze prozesu bat izatea. Kongresu honetan guk, irakaskuntzako ikuspegitik, jarra, iritzi eta terrorismoaren aurkako neurri ezberdinei buruz eztabaidatu dugu. Baita alderdi politikoei buruz ere. Baina hori guztia errespetuz gaude egiten. Nik, bertan, korrante nagusian dauden agenteen eta Euskal Herriak berak duen mikroklimatearen barruko agenteen arteko elkarrizketa konstruktiboa igartzen dut faltan. Justiziako arazoei irtenbidea aurkitzeko ezinbestekoa da inposaketarik gabeko elkarrizketa baliatzea. Hemen pauso hori eman egin behar da.

Labur esanda, zer landu duzue kongresuan?

Orokorrean esateko, kongresu honetan terrorismoaren aurkako gerra honetan giza eskubideak noraino heltsen diren aztertu dugu. Azterketa hori jakintza alorraren eta historiaren alorraren ikuspuntutik jorratu dugu. Eta hori estatu demokratikoen edukia eta esanahia parametro bezala hartuz egin dugu. Izan ere, guztiok dakigu mota honetako krimenen aurka egiteko askotan berme konstituzionalak alde batera lagatzen direla: segurtasunagatik, askotan, askatasuna murrizten da. Kongresuaren hainbat hitzalditan oinarritzeko eskubideen askotariko urraketak aztertu ditugu, eta baita horiek zilegiak diren edo ez. Horren guztiaren gainean eztabaidatzeko, zuzenbidearen eta konstituzioaren alorreko historialari eta nazioarteko zuzenbideko adituen ikuspuntuaz baliatu gara.

Kongresu honek esanahi berezia izan du bertan, Euskal Herrian, egitearren?

Ez. Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen duen izena handia da eta jakin bage-nekien garrantzi handiko kongresu hau bideratzeko gai zela. Gaur egun ez da erraza mota honetako

kongresuak egitea, laguntza gutxi ematen dira-eta. Oñatin aukera hau izan dugu eta aprobetxatu egin dugu.

Teorian Giza Eskubideak egoera guztien gainetik daude. Baita terrorismoaren gainetik ere?

Bai. Izan ere, terroristen aurrean giza eskubideen bermeak huts egingo balu, terroristek nahi dutena lortuko lukete: demokraziaren eta zuzenbide estatuaren deuseztapena. Giza eskubideak beti errespetatu behar dira; izan ere, horrek handi egiten gaitu terroristen aurrean: gizakien duintasunarekiko dugun errespetuak eta, azken finean, oinarritzeko eskubideen euskarriak.

Urteek aurrera egin ahala, giza eskubideen alorrean aurrerapausoak ematen ari dira? Zertan aldatu da legea?

Giza eskubideen alorrean Espainian aurrerapauso handiak eman ziren 80ko eta 90eko hamarkadetan. Baina 2000. urtetik aurrera pausoak atzerantz egin dira; zigorraren alorrean bai, behintzat. Gaur egun zuzenbide penalak duela urte batzuk baino esparru handiagoan jarduten du, konstituzioaren kalterako. Gizarteratzeko ideia, esaterako, guztiz alboratuta dago. Delitua egiten duena arriskutsua dela esaten da eta, ondorioz, kosta ahala kosta, kartzelan egon behar du ahalik eta denbora luzeen. Gizarteak seguru sentitu behar du. Horrela, bada, gero eta delitu gehiago existitzen dira eta gero eta kartzela-zigor luzeagoak daude. Hitz gutxitan esateko, zuzenbide penala gero eta esparru handiagoa hartzen ari da.

Terrorismoaren aurka egiteko dena da zilegi?

Ez. Giza duintasunaren ideiak giza eskubideak errespetatzea eskatzen du, baita terroristena ere. Nahiz eta haien ekintzak maltzurak izan, estatu demokratikoak limite batzuk errespetatu behar ditu terroristen horiek harapatzerakoan eta epaitzerakoan. Muga horietatik kanpora irteten bada, tiranian erortzeko arriskua dago.

Europako parlamentu askotan terrorismoaren aurkako lege berriak onartu dira azkenaldian. Orain, delitu terroristak izenburupean, posible da pertsona bat epaitzea oraindik deliturik egin ez duenean. Ados zaude?

2002. urtean *Minority Report* filma ikusi nuenean hau pentsatu nuen: "Eskerrak hau zientzia fikzioa den". Film hartan deskribatzen zen gizartearen, pertsonak atxilotuak



Aniceto Masferrer, Oñatin. | CRISTINA RUIZ

"Zuzenbide penala gero eta esparru handiagoa hartzen ari da gaur egun"

"Terrorismoaren aurkako borrokan estatuak muga batzuk ditu"

"Gure gizartearen giza eskubideak bermatzea betebeharrak da"

"Justiziaren tresnak ez dira eraginkorrak terrorismoaren aurka egiteko"

eta kartzelaratuak izan zitezkeen delitu bat egin aurretik. Nahikoa zen delitua pentsatu edo imajinatzea atxilotzeko. Zoritxarrez, beste behin ere, errealtateak fikzioa gainditu ahal duela erakutsi digu: delitua egiteko asmoa edukitze hutsa delitua bera egikaritzeko arriskua dela uste da orain, eta hori gizartearen hain zabaldua dagoen segurtasunik ezaren ideiak eragin du.

2001eko irailaren 11 ezker mundu osoko sistema judiziala aldatu da. Askoren ustez, justizia "kriminalizatu" egin da. Zer deritzozu?

Baieztape hori guztiz erreala da. Nahikoa da AEBek Bushen agindupean aurrera eramandako gerra aztertzea. Gerra hori ustez demokratikoak ziren beste estatu askok babestu zuten. Eta horren adibide dira tortura metodoak, Guantanamoen existentzia, mundu osoan zehar zabaldutako sekretupeko kartzelak eta CIAk presoekin Europan zehar egindako hegaldi sekretuak. Jarrera hori estatu demokratikoen markotik kanpo dago. Azken urteetan askatasunaren izenean egindako astakeriak asko dira. Horien guztien aurrean lotsa eta pena sentitzen dut.

Aurrera begira, zer hobetu behar da?

Giza eskubideak beti errespetatu behar dira. Kriminalitatearen aurrean giza eskubideak bermatzea betebeharrak bat da zuzenbideko estatuaren eta estatu demokratikoaren. Eta horiek errespetatzeko, ez da nahikoa betebeharrak horiek itun eta bestelako hitzarmenetan jasota egotea. Ezarri eta errespetatu egin behar dira. Bitartekoek gizakien duintasuna bortxatzen badute, helburuek ezingo dute bitarteko horiek justifikatu.

"Justizia motela da". Esaldi hori askotan entzuten da. Zer deritzozu? Tresna judizialak eraginkorrak/nahikoak dira terrorismoaren aurka egiteko?

Justizia batzuetan motela da, bai, baina ez terrorismoari dagokionez. Nire ustez, dagoeneko nahikoa, gehiegi ez esatearren, tresna juridiko daude fenomeno honen aurka egiteko. Baina tresna horiek ez dira eraginkorrak, eta hori da arazoa. Terrorismoaren aurka egiteko ezin da ikuspuntu juridikotik bakarrik jardun. Terrorismoak politikan ditu sustraiak. Hasiara baten sustrai horiek ulertu egin behar dira. Eta horren ondoren, gizarte eta politika alorreko tresnak erabilita, terrorismoari aurre egin ahal izango zaio.



*Eraman dotoretasuna
zure etxera*



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Juan Luis Arexolaleiba | HBko eta EHko zinegotzia (1995-2001)

- ▶ Euskara, Kultura eta Jaietako zinegotzia izan zen
- ▶ Dragoi-jana eta Eguzki Laru bultzatu zituen
- ▶ Politikoki Arrasate beti jomugan egon dela dio

"Orduan zentsura-mozioan parte hartu zutenak orain Bildun daudela ikusteak poztu egiten nau"

ASIER ALKORTA | ARRASATE

Udalean egon zen garaia gogora ekarri eta hizketalditxo bat izateko etxeko artxiboa begiratu behar izan duela onartu du Juan Luis Arexolaleiba *Gatxi*-k. Behin hori eginda, baikor eta irribarretsu jarri da mahaian, urte haietan bizi izandakoa kontatzeko. Nostalgia sentitzen ez badu ere, urte aberasgarriak izan zirela esan du.

Zelan sartu zinen politikan eta Udalean?

Konpromisoagatik sartu nintzen. Ideia batzuen alde nengoen eta hortik abiatuta sartu nintzen. Arrasateko zinegotzi moduan 1995. urtetik 2001. urtera egon nintzen. Lehenengo agintaldian, 1995. urtean hasi zena, Herri Batasunan (HB) nengoen eta 1999. urtean Euskal Herritarrok (EH) alderdian. Euskara, Kultura eta Jaietako ardura izan nuen.

Zelan gogoratzen dituzu garai haiek?

Garai gogorak izan ziren. Alde batetik, ezker abertzaleak alkatetza gehiengo barik zuelako eta, ondorioz, gauzak aurrera ateratzeko akordioak lortu behar izaten genituelako. Eta bestetik, Arrasate beti egon delako jomugan. Ortega Lara aske uztea, Miguel Angel Blancoren hilketa, Lizarra-Garazi, Xabier Zubiza-

rreta alkatearen atxiloketa... Dena batera gertatu zen eta muturreko egoerak bizi izan genituen oso denbora laburrean. Hor kontraesanak izan ziren.

Zein kontraesan?

Batetik, udal baten eguneroko gaiak zeuden; eta gero, dimentsio publikoko gai handiak zeuden, oihartzun zabalagoa zutenak.

Gertaera handi haiek Udalaren eguneroko jarduna oztopatu zuten?

Ez, bi plano ezberdin ziren. Bata askoz mediatikoagoa zen bestea baino.

Zeintzuk izan ziren Udalean egon zinen artean bultzatu zenituen ekimen garrantzitsuenak?

Euskararen alorrean gauza asko lotuta zeuden gu Udalean sartu orduko. ADErekin elkarlana, Txatxilipurdi eta ARKO (Arrasate Komunikabideak), esaterako. Alde batetik, ARKO ospitale zaharretik egoitza berrira pasatzea izan zen pauso garrantzitsu bat; eta beste bat, Udala *Euskaldunon Egunkaria*-ren bazkide egitea. Azken hori asko kostatu zen. EAJk eta PSE-EEk ez zuten euren babes ematen eta asko kostatu zen. Nire lorpen politiko handiena, aldiz, Arrasate Irratia ARKOk, egungo Goienak, kudeatzea izan zen. Eta hori beti esaten dut. Ez zuten zentzurik biak bananduta

egotea, jakinik bi taldeek helburu berak zituztela. Hura ere asko kostatu zitzaigun, baina lortu egin genuen. Jaiak ere erronka garrantzitsua izan ziren.

Jaiak berpiztu egin nahi zenituzten?

Jaietan, herrian beti mezu ezkorrak entzuten ziren. Herriko jendea kanpora joaten zela eta horrelakoak. Sanjuanak herri bizi baten ispilu izatea nahi genuen guk. Lan handia egin genuen kultura eta euskara elkarrekin. *Geu gara garra* lelopean ekimen asko egin genituen. Eta horren ondorio izan ziren AEDk, AEK-k, EHEk eta Eusko Taldeak sortu zuten dragoi-jana eta Txatxili-

"Denbora oso laburrean muturreko egoerak bizi izan genituen"

"Arrasate Irratia ARKOk kudeatzea izan zen nire lorpen politiko handiena"



Juan Luis Arexolaleiba, Monterron parkearen sarreran. | ASIER ALKORTA

purdik Eguzki Laru martxan jartzea.

Gauregunerekin horiek martxan jarraitzen dutela ikusteak ilusioa egiten dizu?

Bai, nolabait esateko. Aurretik ere beste gauza batzuk bazeuden, baina guk, ekimen berri horiek martxan jarrita, zegoen aukera hori zabaldu egin nahi izan genuen. Jaietan ezin ginen geratu sufritzeko, ondo pasatzeko baino. Kultura arloan ere aurre-rapausoak eman genituen. Niri, frantziskotarrekin akordiora heltzea egokitu zitzaidan. Monterronek ez zuela funtzionatzen ikusi genuen, eta hor hasi ginen mugitzen.

Baduzu bereziki momentu onen bat gogoan?

Abertzaleen arteko elkarlana eta herri honek bizi izan dituen garai latz guztiak ditut gogoan. Orokorean esanda, nire ustez, Lizarra

-Garaziren momentua une ona izan zen. Herri mailan, aldiz, lehenengo urteko sanjuanak ditut gogoan. Jaien hasiera ez bezala, bukaera ona izan zen, kalejira batekin.

Eta momentu gogorak?

Asko. Urte gogorak izan ziren eta Arrasate jomugan egon da beti. Zentsura-mozioa eta hark ekarri zuen oihartzun mediatikoa gogorak izan ziren.

Barruan egonda, Udalarekiko zenuen ikuspegia aldatu egin zen?

Ez horrenbeste. Pertsonalki hartu nuen erronka izan zen eta herri bat kudeatzea ez dela erraza konturatu nintzen.

Urte haiek nostalgiaz gogoratzen dituzu?

Garai emankorrak eta politikak izan ziren; aberasgarriak niretzat. Orain, orduan zentsura-mozioan parte hartu zutenak Bildun daudela ikusteak poztu egiten nau.

MAGAZINEA

GOIENA TELEBISTA | GOIENA MAGAZINEA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA, 19:45 | ARRITXU BARRUSOK AURKEZTUA



HERRIAK

ARAMAIO

Udalekuetako amaiera festa gaur eguerdian Aramaioko plazan

- ▶ Hamaika begiraleren ardurapean, 110 neska-mutikok hartu dute parte aurten
- ▶ Kultur Etxean batu dira egunero gaztetxoak, joan den uztailaren 6tik

EDU MENDIBIL | ARAMAIO

Biseratxo urdina jantzita ikusi ditugu azken egunotan Aramaioko udalekuetan parte hartu duten gaztetxoak. Inoiz baino gehiago izan dira aurtengo udalekuetan parte hartu dutenak, 3 urtetik 12 urtera bitarteko umeak. Halaxe azaldu digu Ana Muñoa koordinatzaileak. Muñoak 2002. urtetik dihardu horretan. Haren ardurapean, 11 begiralek jardun dute uztailaren 6tik hona. Ohikoa den moduan, Aramaioko jaien osteko eguaztenean ekin zioten udalekuei eta ordutik egunero batu dira kultur etxean, 10:00etatik 13:00etara.

Saio didaktikoak tartean

Aurreko urteotan bezala, eguraldiak lagundu duen guztietan kanpoko jarduerak egin dituzte gaztetxoek: jolasak, irteerak, tailerrak... Sasoi didaktikoak ere ez dira falta izan: esaterako, Zalazan errota eta hango aroztegia ikusten izan dira eta Jose Bengoak eman zizkien azalpenak gaztetxoei. Denbora luzean geldi egondako makinak martxan jarri zituen Bengoak, umeen harridurarako. Eta Azkoagan, Rakel eta Divina Arrriola-bengoak ahizpen eskutik, ogi biologikoa egiteko prozesua bertatik bertara jarraitu ahal izan zuten. Santi Elejalde tailagileak ere saio txo bat eskaini zien eta udan, nola ez, ezinbesteko irteera ere egin dute bainua hartzeko: Otxandio-ko igerilekuetan behin baino gehiagotan izan dira. Azken aldiz egubakoitzean bertan izan ziren uretan jolasean.

Ana Muñoa pozik dago aurten jasotako erantzunarekin: "Nagusiak ere iaz baino gehiago etorri dira eta oso gustura ibili gara. *Pilak* jarrita etorri izan dira neska-mutikoak eta horrek asko errazten ditu gauzak... Gurasoendako ere aukera ona da udalekuena eta, aldi berean, gaztetxoek etekin handiago ateratzen diete oporretako lehen egunei, lagunartean gainera".

Festa plazan, gaur eguerdian

Esan bezala, gaur, astelehena udalekuen amaiera festa egingo dute plazan, 12:00etatik aurrera. Hainbat gauza prestatu dituzte gaztetxoek: Pirritx eta Porrotx pailazoen *Maite zaitut* kantua, indioen eta bakeroen antzezpena, maskarak, dantzak, eta abar luze bat. Sorpresak ez dira faltako.



Inoiz baino partaidetza handiagoa izan dute Aramaioko udalekuek aurten: 3-12 urte bitarteko 110 neska-mutiko ibili dira. | ANA MUÑOA



Aurreko eguaztenean Otxandio-ko igerilekuan izan ziren.

Umeen Euskararen Eguna bihar Izarran

Bihar, martitzena, Zuiako Koadrilako Umeen Euskararen Eguna ospatuko da Izarran. Hara joango dira Aramaioko udalekuetako gaztetxoak eta Legutio, Durana, Ondategi, Murgia eta Izarrako neska-mutikoekin batuko dira. Euskararen Egunaren 12. ekitaldia izango da biharkoa. Puzgarriak, tailerrak, haur diskoteka eta beste lako jardueran izango dituzte Izarran goiz osoan zehar. Ordu bie tan itzuliko dira Aramaiora autobusean. Oporrak luzeak dira oraindik...



Maskarak egitea izan da jardueretako bat azken egunotan.



Aisialdiaz euskaraz gozatzea da udalekuen helburuetako bat.

17

Parranda asko eta emozioz betetako alardea jaietan

Iñaki Arbulu zenari eta Alejandro Muxikari alardean egindako omenalditxoek txalo zaparrada eragin zuten

ARRITXU BARRUSO | ANTZUOLA

Gau eta egun, jendez beteta egon dira asteburuan Antzuolako Herriko Plaza eta inguruak. Egunez antzuolarrak ibili dira gehienbat, baina gaua iristearekin batera Bergara, Arrasate, Urretxu edo Zumarragako gazteak ere joan dira parrandan. Zalantza barik, udaroko hitzorduetako bat dira Antzuolako jaiak.

Alkatearen estreinaldia

Udalekuetako umetxoek egindako ekitaldiarekin hasi zituzten jaiak eguen goizean, baina jaiak benebenetan alkate eta zinegotzien dantzarekin hasi ziren, ohi moduan. Aurten udalbatza berria izanda, ikusmina sortu zuen dantzaldiak; animo oihu asko jaso zituzten.

Zezenak eta Kubako doinuak

Jaiak eguenean hasi baziren ere, egubakoitzean ez zegoen bihar-munik Antzuolan; eguna lapiko artean hasi zuten. Gastronomía lehiaketak sekulako arrakasta izan du aurten eta Zurrategin giro izugarria ipini zuten herriko sukaldariek eta *pintxe*-ek.

Arratsaldean, berriz, *zezen*-plaza bilakatu zen Zurrategi. Jende dezente erakarri zuten zezenetxoek

Patatak errioxar erara prestatuta

Gastronomia lehiaketako antolatzaileak oso pozik daude aurtengo edizioak emandakoarekin. Hamabi taldek hartu zuten parte egubakoitzean Zurrategi kalean egindako lehiaketan; sekula baino parte-hartzaile gehiago. Antolatzaileek gainera, lehiaketan zehar sortutako giro bikaina azpimarratu dute.

Errioxar erara prestatutako patata onenak Sofia Sanchez, Begoña Egaña eta Jon Molinarenak izan ziren. Sari modura lapiko eder bana irabazi zuten.

eta gazteek denetariko abileziak eta probak egin behar izan zituzten zezenen aurrean.

Joselu Anaiekin azken parranda Jaietako zapatua egun handia izaten da Antzuolan eta kanpotar

asko erakartzen dituen. Gero eta ikusgarriagoa bilakatzen ari den alardeak jendetza erakarri du aurten ere eta Herriko Plaza inguruak lepo bete ziren zapatu arratsaldean. Ordu bete pasatxo antzezpena izan zen, baina, inor ez zen bere tokitik mugitu alardeak iraun zuen denboran.

Behin alardea bukatuta, parrandari ekin zioten gazte eta ez horren gazteek. Alardean parte hartutako guztiek, hasteko, luncha egin zuten udaletxeko osoko bilkuren aretoan, eta parte hartu ez zutenek tabernetan txikiteoari ekin zioten.

Hiru orduren bueltan, Herriko Plazan elkartu ziren guztiak. Joselu Anaiek ez zuten hutsik egin; euskal erromerien erregeek atsedetik hartzeko denbora barik dantzan ipini zituzten denak.

Domekan ere jo eta su

Jaietako azken egunak lasai xamarak izaten dira batzuetan, baina ez da hori antzuolarren kasua. Iluntzean Hip-Hop doinuak iritsi ziren Zurrategira eta ondoren erromeria ere izan zuten Izer, Alabier eta Lutxurdiorekin. Aurtengoz nahikoa eta sobera, hurrengo urtean gehiago.

Emozioz betetako alardea

Antzuolako Alardea Biziberritzeko Taldea osatu zuten duela hiru urte eta badirudi ari dela bai, biziberritzen eta indarra hartzen alardea. Antzuolako Herriko Plaza eta inguruak jendez gainezka zeudela hasi zen zapatuan 902. urtean Valdejunqueran gertatutako bataila irudikatzen duen antzezpena. Aurtengoa, gainera, emozioz betetako izan zen: Alejandro Muxika eta Iñaki

Arbulu zena omendu zituzten, biak ere urte askotan alardean parte hartu izandakoak, lehenengoak artillero moduan eta besteak Antzuolako bandera eramaten. Omenaldi biek ere herritarren txalo zaparrada eragin zuten.

19:00ak puntu-puntuan hasi zen alardea eta 70 minutu inguru iraun zituen. Inoiz baino jende gehiagok hartu zuen parte: 175 lagun. Lan handia eta entsegu asko eskatzen dituen ikuskizuna den arren, ondo baino hobeto joan zen dena.



Hip-Hop eta dantza saioa egin zuten atzo arratsaldean Zurrategin. | J.A.



Inma Beristain alkateak Iñaki Arbulu zenaren emazteari Elayko lankideek egindako orroig



JOSEFINA IRIZAR
ANTZUOLA

"Bertakoak garenez urtero etortzen gara alardea ikustera. Jaietako hitzordu garrantzitsuenetarikoa izaten da".



JOSE JOAKIN LARRAÑAGA
ANTZUOLA

"Alardea ikusi eta txurro batzuk jaten egon gara; plan ezin hobea! Jaietan jana eta edana dira nagusi eta gero gerokoak".



MIKEL LARRAÑAGA
ANTZUOLA

"Mairuak ezin du urdaiazpikorik jan ezta alkoholik edan ere, baina gu gustura gaude ardoarekin alardea bukatu izana ospatzen".



ASIER LONGARES
ANTZUOLA

"Festak hasi zirenetik parrandan nabil eta dagoeneko ahots barik nago. Gaur apur bat goizago joan beharko naiz etxera".



WILLIAM
ESLOVAKIA

"Oñatira, Araotzera, etorri naiz eskalatzera eta Antzuolara ekarri naute. Gaur parranda tokatzen da. Neska polit bila gabiltza".



Alejandro Muxikari omenaldia egin zioten eta bi kainoiak piztu zituen berriro ere. | JA.



Inma Beristain alkatea aureskua egiten egubakoitzean. | USOA AGIRRE



Zezentxoekin jolasean gustura ibili ziren gazteak Zurrategin. | JA.



erria eman zion. | JOSETXO ARANTZABAL

DATUA
175
LAGUN ALARDEAN
Urtetik urtera gora doa alardean parte hartzen duten herritarren kopurua.

DATUA
130
URTE
1981ean egin zen lehen aldiz alardea eta duela hiru urte aldaketak egin zituzten.



Mairua eta Buruzagia. | JA.



Joselu Anaiek dantzan ipini zituzten Herriko Plazan batutakoak. | IMANOL GALLEGA



Gastronomia lehiaketako sari banaketa. | JL.



JONE GORROTXATEGI
ANTZUOLA

"Etxerako bidean harrapatzen nauzue. Seme alabekin jaiak asko aldatzen dira. Nire jaiak orain umeen erritmora egokitu behar ditut. Egunez egiten dut parranda eta gauean, berriz, etxean geratu behar izaten dut. Gizonarekin parrandan irtetea gustatuko litzaidake, baina..."



JOSEBA IPARRAGIRRE
BURUZAGIA

"Gaurko ekitaldiarekin zabaldu nahi dugun mezua da ez dagoela garaile edo galtzailerik; herri guztiek dutela aske izateko eskubidea".



JUAN KARLOS GOMEZ
MAIRUA

"Dena oso ondo irten da. Antzezlanak bukatu da eta orain txanpan apur batekin ospatzeko garaia da".



Auzo bazkaria joan aurretik, txaranga doinuekin dantza egin zuten zapatuan Santa Marinako bizilagunek. | A.B.

ARRASATE

Lo gutxi egin dute asteburuan Santa Marina auzoko bizilagunek

Egubakoitz gauean kabaret doinuak izan zituzten eta zapatuan, berriz, rocka

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Auzoko jaiak ondo joateko ezinbestekoak dira auzotarren inplikazioa eta parte-hartzea. Bada, Arrasateko Santa Marina auzoko bizilagunek ezin hobeto erantzun dute asteburuan. Egubakoitzean hasi eta atzora arte gelditu ere egin barik ibili dira.

Egubakoitz arratsaldean banderaren igoerarekin hasi zituzten jaiak, eta txokolate-jana eta pintxo

-poteoa egin ostean, gauean kabaret ikuskizuna izan zuten. Kabaret doinuekin motorrak berotu ostean, goizeko ordu txikietara arte jarraitu zuen festak Santa Marinan.

Auzo bazkari arrakastatsua

Lo gutxi egin arren, zapatuan ez zen biharamunik sentitu. Eguerdian Flash txarangarekin dantza egin ostean, auzo bazkaria egin

zuten. Aurtengo nobedadea horixe izan da; auzo alkatetzak bazkaria berreskuratzea erabaki zuen eta hemen ere erantzun zuten auzotarrek: 45 lagun elkartu ziren San Esteban del Puerton.

Zapatu gauean, berriz, rock kontzertuen txanda izan zen eta Eko D Bul auzotarrak animatzen jende dezente gerturatu zen. Domekan, bai, biharamona zen nagusi auzoan.



ISA SANJUSTO

"Jaiak oso ondo doaz, oraingoz; bixamon apur bat dudan arren, gaur gauean berriz gaupasa egiteko asmoa daukat. Auzoko jaiak oso bereziak izaten dira niretako eta dena ematen dut".



ANA GRANADO

"Auzo alkatea naizenez, jaiak lan asko suposatzen dute niretako, baina dena oso ondo irteten ari da eta disfrutatzen ere banabil. Aurten herri-bazkaria berreskuratu dugu eta 45ek eman dugu izena".



IGOR MAÑEGA

"Atzo, egubakoitza, formal ibili nintzen, beraz, gaur parranda ederra botatzeko asmoa daukat. Ez gara herri-bazkaria joango, baina bazkaria egingo dugu lagun artean. Gauean, festa gehiago!"




NOAH ETA EIDER

"Bata bestearen lagun onenak gara eta jaietan ere batera ibiliko gara. Puzgarriak asko gustatzen zaizkigu eta dantzan ere ibili ginen atzo gauean. Jaietan oso ondo pasatzen dugu".



Bolo txapelketa egin zuten zapatu arratsaldean. | JOSETXO ARANTZABAL



Oñatiarrak jatekoaren zain garagardo ferian, zapatu iluntzean. | JOSETXO ARANTZABAL

OÑATI

Jatekoa eta zerbeza gura beste, eta giro ezin hobea garagardo festan

Umeendako jolasek eta mus txapelketak girotu dute Aloña Mendikoek antolatutako feria

MIRARI ALTUBE | OÑATI

Eguenean hasi eta atzo artean jai giroa izan da plazako aparkalekuan, eta oñatiarrak ez diete hutsik egin Aloña Mendikoei; jende morda eta giro ezin hobea izan da garagardo festaren bueltan.

Jatekoa gura beste: saltxitxak, oilaskoa, ukondoak eta aurtengo nobedadea, brotxetak. Oso goxoak gertatu zituzten azken horiek, eta domekarako 30en bat bakarrik geratu zitzaizkien. Eta jatekoa bustitzeko hainbat motatako garagardoak izan zituzten, 10 bat guztira. Zapatuko eguraldiak lagunduta, jende asko elkartu zen bazkaldu eta afaltzera: "Zapatuan bakarrik ez, eguenetik bertatik ibili da jendea ferian; baita

domekan ere, nahiz eta ez izan jende asko ibiltzen den eguna", jakinarazi du bertan lanean izandako Aratz Losadak.

Aloña Mendiren bueltan

V. garagardo festak erakutsi du herrian guztiz errotutako jaia dela: "Izan ere, Aloña Mendik 14 sail ditu eta batean edo bestean dela, herritar gehienak daude elkarteari lotuta. Ondorioz, jende asko ibili da bai ferian, bai laguntzen", argitu du Losadak.

Egunotan jasotako dirua saskibaloi taldekoendako izango da; horregatik, eurak ibili dira lanean: "Hala ere, batzordeko jendeak eta beste hainbatek asko lagundu dute, egun asko izan dira eta".



Umeek ederto pasa zuten puzgarrietan. | MIRARI ALTUBE

ARETXABALETA

Auzotarrak oso pozik, berreskuratutako Portasolgo Jaiekin

Buruhandiek, gaueko kontzertuek, txapelketek eta eguerdiko txikiteoek girotu dute auzoa egunotan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Jai giro benetan polita sortu da Aretxabaletako hegoaldeko kale eta plaza bazterretan aste bukaran. Portasolgo Jaiek 2001az geroztik ez zituzten ospatzen eta auzotarrek gogoz hartu dituzte.

Egubakoitzeko jai hasierak herritar mordoa ekarri zuen auzora; umeak buruhandiei iheska eta helduak trikitilariekin txikiteoan. Gaueko kontzertuek ere jendea elkartu zuten, ume eta helduak mariatxiei begira, eta gazteak, rock kontzertuan.

Tango erakustaldi dotorea

Zapatua beteranoen futbol partidarekin hasi zuten: Aretxabaleta-Eibar. Etxekoek galdu egin

zuten (1-5) baina lagunarteko giro polita sortu zen futbol zelai inguruan. Bazkalostea, oster, txapelketek girotu zuten; musa batetik eta 3x3 futbola bestetik.

Atzo, ilun esnatu zen eguna, baina iragarritako mendi bueltatxoa egin zuen taldetxo batek. Eguerdi partean tango erakustaldi dotorea izan zen Iruña eta Gasteiztik etorritako dantzarien eskutik. Eta jaiak bukatzeko, zekor eta poniekin egin zuten jolas ume eta gazteek.

Antolatzaileak -ostalari, merkataria eta hainbat auzotar- "oso pozik" daude jaiak izan duten harrerarekin, eta dagoeneko hasi dira pentsatzen datorren urtean zelan antolatu hobek.



Iruña eta Gasteiztik etorritako dantzarien tango erakustaldia Gipuzkoa plazan, atzo eguerdian. | JOSETXO ARANTZABAL

ASIER ERRASTI
ARETXABALETA

"Jai onak ziren lehen eta oroitzapen oso politak ditut; jende asko etortzen zen kanpotik. Ondo deritzot berriro antolatzeari eta egitarau dotorea gertatu dute, gainera".

LOREA, LEIRE, HAIZEA, ENEA
ARETXABALETA

"Oso ondo gabiltza pasatzen, jolas eta jolas. Buruhandiak gustatu zaizkigu asko eta mariatxiak ikusten ere egon ginen. Urtero ospa ditzatela eskatu gura dugu".

MIKEL URIBETXEBARRÍA
ARETXABALETA

"Ideia ona izan da jaiok berreskuratzea; sasoi batekoen oroitzapen politak ditut nik. Denendako ekitaldiak antolatu dituzte eta oso giro ona sortu da".

ALICIA LLAMAS
ARETXABALETA

"Oso pozik nago, jaiak berriro noiz antolatuko zain nengoen eta. Antolatzaileek lan handia egin dute eta benetan politak gertatu dituzte; dena dut gustuko".



SERGIO AZKARATE

ARRASATE

Azkenpote koadrilakoek 10. urteurrena ospatu dute

Arrasateko Kokotxa eta Sokoakoak koadrilak elkartu eta Azkenpote koadrila sortu zen orain dela 10 urte, Soko tabernaren inguruan. Urteurren hori ospatzeko, egun pasa egin zuten Sara merenderoan; bazkaria eta umeendako puzgarriak. 70 bat lagun elkartu ziren eta eskapularioak atera zituzten orain dela gutxi hildako Bittinen omenez, "koadrilaren alma matera izan zena". Eta gauean jai giroan jarraitu zuten guraso batzuek.

ARAMAIO

Giro ezin hobea Arexola eta Arriola auzoetako Santa Marina jaietan

M.A. | ARAMAIO

Santa Marinaren omenezko jai dotoreak ospatu dituzte Aramaioko Arexola eta Arriola auzoetan, aste bukaera guztian. Egubakoitzean, bertso afaria izan zen gaueko izarra, eta Andoni Egañak eta Sebastian Lizasok ez zieten hutsik egin. 95 bat auzotar elkartu ziren afaldu eta bertsolarien jardunarekin ondo pasatzeko.

Aramaioko dantza taldea

Zapatu eguerdian Ibaratik Aixolara bizikleta lasterketa egin zuten, urtero legez. Eta arratsaldean, mus eta briska txapelketak izan zituzten. Gaua, Laja II eta Narbaizak girotu zien eta atzo, Aramaioko dantza taldearen erakustaldia izan zuten meza ostean. Aurtengo jaiak umeen jolasak eginda bukatu zituzten arratsaldean.



Aramaioko dantza taldea erakustaldia egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

Gazte Bulegoa, oporretarako gune bisitatuena

Uztailean hainbat gaztek bisitatzen dute Biteriko egoitza; gehienak txartelak ateratzera joaten dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Badatoz udako oporrak eta, beraz, Gazte Bulegoa jo eta ke ari da lanean. Izan ere, uztailean hainbat gazte hurbiltzen dira Biteri plazako egoitzara oporretara nora joango diren erabaki ostean denetarikoa informazioa eskatzera. Dorleta Kortazar Gazte Bulegoko

arduradunak honela azaldu du: "Inter Rail erako bidaia berreskuratzen ari gara, krisiaren eraginez askok merke bidaiatzea dute-eta helburu. Europara ere asko joango dira: Kroazia, Eslovenia, Txekia, Austria, Italia... Eta baita Landetara, Bretainiara eta Korsikara ere".



Joan den astean lehenengoz atera zuten informazioa kalera. | JOKIN BEREZIARTUA

Txartel interesgarrienak

Udako oporrak prestatzeko orduan gazte asko hurbiltzen dira denetarikoa abantailak eskainiko dizkien txartelak ateratzera. Ostatu hartzeko, museoak bisitatzeko edota erosketak merkeago egiteko aukera eskaintzen duten txartelak dira.

Kortazarrekin batera, txartel interesgarrienak errepasatu ditugu.

Aterpekeide txartela: ez ditu deskontuak eskaintzen baina beharrezkoa da mundu osoko aterpetxeetan lo egiteko; prezioa, adinaren arabera. Ikasle-isis txartela: garraio, ostatu, museo,

kulturgune, antzoki eta beste hainbat lekutan abantailak eskaintzen ditu eta txartela ateratzeko argazkia, NA eta matrikula aurkeztea beharrezkoa da; prezioa, sei euro.

Irakasle-itic txartela: ikasle txartelaren antzeko abantailak eskaintzen ditu eta argazkia, NA eta lan kontratua aurkeztu behar dira; prezioa, zortzi euro.

Gazte txartela: 14 eta 19 urte arteko gazteendako da eta erabiltzailea etxetik 30 kilometro baino urrunago dagoenean bidai aseguru interesgarri bat eskaintzen du; prezioa, bost euro. Eskara Internet bidez egin behar da www.gaztetxartela.net helbidean. Europako osasun txartela: beharrezkoa da Europan osasun zerbitzuak erabiltzeko. Gizarte Segurantzako bulegoetan eskatu behar da.

Argibide gehiago eta denetarikoa aholkuak jasotzeko, Gazte Bulegora jo.

Jokin Uribeetxeberria | Begirale lanetan Ingalaterran

"Askorendako kanpoan duten lehen esperientzia denez, babesa ematen diegu"

Uztailaren 6an joan zen Ingalaterrara, eta hilaren 29rako Arrasaten egongo da

J.B. | ARRASATE

Barnstaple (Ingalaterra, Devon konderrria) herrixkan begirale lanetan dabil Jokin Uribeetxeberria (Arrasate, 1989). Bigarren urtez joan da jarraian; bere esperientzia partekatu du gurekin.

Zein da bidaiaren helburua?

Nirea, ongi pasatzea eta bide batez ingelesa praktikatzeko. Begirale moduan etorri naiz, Barnstaple herriko auzo batera. Klaseak egunero Bideford-eko Kingsley School-en izaten ditugu eta nire lana da bertako irakasleei behar duten edozertan laguntzea.

Horrez gain, ikasleei era guztietako ekintzak antolatzeaz arduratzen naiz -beste begiraleekin batera- eta baita ikasle guztiak

gustura sentiarazten eta gure babesa uneoro ematen. Izan ere, askorendako lehen esperientzia da Euskal Herriko urrun, ohitura desberdinak dituen familia ingeles batean, eta ez da batere samurra izaten.

Nola suertatu zitzaizun aukera?

IBEX erakundeak aurretik ikasle moduan etorritako pertsonak ekartzen ditu begiraleak izan daitezten. Kontua da orain bospasei urte ikasle moduan etorri nintzela IBEX-ek antolatzen duen egonaldi honetara. Iaz deitu zidaten eta bitan pentsatu barik baiezkoa eman nuen. Aurtengoa nire bigarren urtea da hemen.

Egia esan, ongi moldatzen naiz. Begiraleen arteko giroa

bikaina da eta horrek dena errazago izatea ahalbidetzen du. Gainera, ikasle moduan lehenago etorri naizenez, bertako dinamika ohitzea ez da batere zaila izan; hori da, hain zuzen, daukagun abantaila nagusietako bat: begiraleak ez gara zerotik hasten, guretzako hau ez da berria eta, beraz, erraza da moldatzea. Familiari dagokionez, oso pertsona onak dira eta oso ongi tratatzen naute.

Zer da Barnstaple-tik gehien gustatu zaizuna? Eta gutxien?

Barnstaple Devon-eko konderrriaren barruan dagoen 34.000 biztanle inguruko herria da. Herri-tik gehien gustatzen zaidana da bertako jendea adeitsu dela;



Uribeetxeberria, eskola kanpoan. | J.U.

batez ere, jende heldua. Pub-etan egoten den giro bikaina ere ezin ahaztu, ezta bidegorriak ere. Bidegorri bukazezinak daude, eta zoragarria da bizikleta hartu eta alde batetik bestera bertako paisaiez gozatzuz ibiltzea. Gainera, dena da laua; hemen ez daude Arrasaten dauden mendi altu eta politak.

Gutxien gustatzen zaidana da hainbat adin txikiko ingelesek

guganako duten jarrera mespretxagarria. Kanpoko ikasle ugari daude hemen eta euren gustukoak ez garela dirudi. Ikasleekin herriko parkean gaudenean, esaterako, zirikatzen etorri izan dira eta noiz edo noiz izan dugu arazoak. Gustatzen ez zaidan beste kontu bat elikadura da. Supermerkatuan aurrez prestatutako jaki asko daude. Eta nola ez, eguraldia! Oso irregularra da eta, beraz, aterkia beti eraman behar da gainean.

Nola zabilza ingelesarekin?

Ez dut ulertzeko arazorik izaten, baina batzuetan nire etxeko emakumeari -60 urte inguruko bikote batekin bizi naiz- ulertzea kostatu egiten zait, azkar hitz egiten dute-eta [barreak].

Hala ere, hizkuntzarekin lehenengo freskotasuna galdu dudala nabaritzen dut. Ongi etorriko zaizkit 23 egun hauek freskotasun hori berreskuratzen.

Zerbait gaineratzerik nahi?

Devon konderriko iparraldeko bisitatzera gonbidatu nahi dut jendea. Oso txoko polita da.



Piraguan oso gustura ibili ziren gazteak, Laga aldean

Azken txanpan sartu dira Udaixe eta Udaero udako ekimenak. Bada, eurei esker, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako 21 gaztetxo Lagara joan ziren piraguan ibiltzera. Eguaztenean joan ziren eta itsasoa ez zen baldintza onenetan. Gainera, euria egin zien. Hala ere, Txatxilipurdiko arduradunek adierazi digute ederto ibili zirela, umoreari eutsiz.

Zarugaldeko jaietako afarirako txartelak, hilaren 24ra arte salgai

Abuztuaren 27an Zarugalde kaleko jaiak ospatuko dira berriro ere. 30 urte ingururen ostean, auzotar talde batek jaiak berreskuratu gura izan ditu eta bizilagunen artean inkesta txiki bat egin ostean erabaki dute jaiak antolatzea. Egitaraua oraindik ez dute erabat zehaztu baina afaria egingo dutela ziurra da. Izan ere, uztailearen 14an jarri ziren salgai txartelak, hilaren 24ra arte.

Branka Tabernan eta Zarugalde garagardotegi ireki berriaren egongo dira salgai, 15 euroren truke. Jai batzordeak dei egin die auzotarrei parte har dezaten.

Abaroarekin Parisera joateko izenematea gaur irekiko da

Abaroa erretiratu elkarteak Parisera irteera berezia antolatzen du. Urriaren 10etik 16ra bitartean joango dira eta egitarau zabala prestatu dute Frantziako hiriburuko toki esanguratsuenak ezagutzeko. Izenematea gaur irekiko dute, abuztuaren 5era arte. 760 euro ordaindu beharko du izena ematen duen bakoitzak; 400 euroko fidantza eskatzen dute. Abaroako bazkide ez direnek ere denbora tarte horretan eman beharko dute izena baina ez dute toki finkorik izango uztailearen 27ra arte. Autobuseko lekuak izenematearen ordenaren arabera beteko dira.



Zalóa Ipiñak argazkiak, grabatuak, film labur bat bat eta instalazio txiki bat batuko ditu Barrenkaleko aretoan. | GOIENA

Zalóa Ipiñak 'Argi diztirak' erakusketa zabalduko du Aroztegin egubakoitzean

Bilbotarra Arte Ederrak ikasitakoa da eta grabatu garaikidearen gaineko masterra egin zuen Galizian; lehen bakarkako erakusketa du Bergarako

EDU MENDIBIL | BERGARA

Zalóa Ipiña 24 urteko bilbotarrak *Argi diztirak* izeneko erakusketa inauguratuko du egubakoitzean, hilaren 22an, Aroztegi aretoan. Leioako Fakultatean Arte Ederrak ikasitakoa da Zalóa Ipiña eta horrez gain grabatu garaikidearen gaineko masterra egin zuen Galizian, Betanzoseko CIEC Fundazioan hain justu. Azkenaldian hainbat erakusketa kolektibo egin izan baditu ere, Bergarako Ipiñaren lehenbiziko bakarkako erakusketa dela esan daiteke.

Argazkiak, grabatuak, film labur bat eta instalazio txiki bat batuko ditu artista bilbotarrak Aroztegi aretoan. Haren hitzetan, "betidanik gustatu izan zait argiarekin lan egitea eta argiaren kontzeptua ia-ia obsesio bat bilakatu da niretzat. Bi dimentsioetatik hiru dimentsioetarako jauzia interesatzen zait baita eta abstrakzioa da nagusi nire lanean". Bergaran hainbat lagun ditu eta ilusioz dator Aroztegi.

Inaugurazio ekitaldia, esan bezala, egubakoitzean izango da,

19:00etan. Erakusketa abuztuaren 14ra arte izango da zabalik, ohiko ordutegian.

Usoa Mendikute, Bartzelonan

Bestalde, Usoa Mendikute bergarrak erakusketa jarriko du Bartzelonan, Gracia auzoko Sol de Nit tabernan (Plaza del Sol, 9). *Momentos* izenburupean, bere azken lanak erakutsiko ditu margolari bergarrak. Uztailearen 28an inauguratuko dute erakusketa eta abuztuaren amaierara arte izango da ikusgai.

Santa Marina ospatzeko meza eta kontzertua

E.M. | BERGARA

Gaur, astelehena, Santa Marina ospatzeko meza izango da parrokan, 19:00etan, eta kontzertuaren ostean Aritzeta abesbatzak emanaldia egingo du bertan. Imanol Urtzelaren zuzendaritzapean, *Panis Angelicus* (Cesar Franck), *You are the new day* (John David), *Amazing Grace* (J. Newton eta A. Secco), *Xarmengarria* (S. Salaberri eta I. Urtzelai), *Neskatz'ederra* (X. Sarasola) eta *Habanera salada* (R. Lafuente Aguado) eskainiko dituzte. Lehenbiziko piezan Izaskun Labaienek bakarlarri jardungo du, ETA Miguel Gonzalez Bastidak organoarekin lagunduko diolarik. *Amazing Grace* izenburuko piezan, berriz, Mari Carmen Muela izango da bakarlarria.

Espoloiko emanaldiak

Bestalde, Berumuga egitarauarekin jarraituz, egubakoitzean, hilaren 22an, Rico McLarrin & Marcos Coll Band taldearen emanaldia izango da Espoloian, 22:00etan. AEB, Alemania eta Galiziako musikariak batzen dituen taldea da. Uztaileko azken hitzordua izango da egubakoitzekoa. Abuztuaren, eguaztenetan izango dira kontzertuak Espoloian: Reverendos abuztuaren 3an; Xabi eta Petti hilaren 10ean; Mursego 17an; eta bukatzeko, Troublemakers taldea abuztuaren 24an.

Euskara ikastearren eta UEUra joateko Udalaren dirulaguntzak

Udako Euskal Unibertsitate-ra joateko eta Bergarako Udala Euskaltegitik kanpo euskaraz ikasten dutenendako dirulaguntzak ematen ditu Udalak. Azken hauen kasuan, Nortasun agiriaren kopia, matrikularen ordainagiria eta euskaltegiaren ziurtagiria aurkeztu behar dira. Laguntza jasotzeko gutxienezko asistentzia ziurtatu behar da. 2010-2011 ikasturtean edota 2011ko udan egindako ikastaroengatik dirulaguntza eskarak irailaren 15erako aurkeztu behar dira udaletxean. Argibideak: bergara.net/Udala/Antolaketa/euskara/zerbitzuak edota 943 77 91 66.

Odol ateratzea egingo dute eguaztenean Seminarioan

Etzi, eguaztena, odol ateratzea egingo dute Seminarioko lokalean. Ohi denez, 18:30ean hasiko dute odol ateratzearekin. Bergarako Odol Emaleen Elkarteak parte hartzeko deia egin die herritarrei.

Bedelkar dendarien elkarteak udako zozketa egin berri du

Bedelkarrek jakitera eman berri ditu udako zozketako hiru zenbaki sarituak. Hori horrela, 500 euroko saria 25.907 zenbakiari egokitu zaió; 300 eurokoa, 5.816 zenbakiari; eta 200 eurokoa, 13.794 zenbakiak jaso du.



EDU MENDIBIL

Aparkalekuak San Migel kalean

San Antonioko San Migel kalean aparkalekuak egokitu dituzte. Zorua asfaltatu ondoren, egubakoitzean bertan aparkaleku plazak bereizi zituzten. Aurrerantzean, hamabost bat autorendako lekua izango da bertan. Sasoi Eraikuntzak SL enpresak eta Udaleko Brigadako langileek egin dituzte aparkalekuak egokitzeko lanak. Zapatutik San Migel kalean aparkatzeko aukera dago.



JESUS MARI OLABARRIA

Bergarako txirrinduzaleak, Segovian

Urtero bezala, aurten ere, irteera egin dute uztailean Bergarako Txirrindulari Elkarteak. 18 zikloturista abiatu ziren Segoviara aurreko asteburuan. Zapatuan, hilaren 9an, 125 kilometro egin zituzten; Segoviatik irten, Navafriaseko mendatea igo (10 kilometroko igoera), handik Cotoseko mendatera (13 kilometro) eta azkenik Navacerradara (1.860 metroko garaiera). Hura igo ostean, Segoviara itzuli ziren, bidean geldituz La Granja de San Ildefonso bisitatzeko. Domekan, Pedrosara joan ziren eta handik Segoviara itzuli. Bazkalostean, Bergarara bueltatu ziren, asteburu ederra igaro ostean. *Allez, allez!*



Udal langileak, alkatea, notarioa eta herritarrek, zozketa hasteko gertu, Santa Ana antzokian. | MIREIA BIKUÑA

SAN MARTIN 4 ETA 5 ZENBAKIAK

ADJUDIKAZIODUNAK	ETXEBIZITZA	ADJUDIKAZIODUNAK	ETXEBIZITZA
Imanol Larrea Leibar	4-behea-A	Unai Marcos Astudillo	5-behea-C
Mikel Egaña Casas	4-behea-B	Teodoro Bowen	5-behea-D
J. Ramon Garai Larrea	4-behea-C	Eneko Gonzalez Guridi	5-behea-E
Jon Igartua Ormategi	4-behea-D	Iñaki Igartua Urtzelai	5-1-A
Unai Sagasta Gavilan	4-behea-E	Rakel Regueiro Leon	5-1-B
Andoni Elkoroiribe	4-1-A	Amaia San Miguel	5-1-C
Jokin Garai Arejolaleiba	4-1-B	Maite Biain Igartua	5-1-D
Gorka Urrutia Zubia	4-1-C	Jesus Erostarbe	5-2-A
Edorta Anduaga	4-1-D	Gotzon Zubia Uriarte	5-2-B
M. Karmen Beitia	4-1-E	Andoni Guridi	5-2-C
Gaizka Bukete Ugarte	4-2-D	Ibai Telleria	5-2-D
Jurgi Ugarte Anguaga	5-behea-A	Miguel Angel Calvo	5-2-E
Mirian Lizarralde	5-behea-B		

ITURRIA: OÑATIKO UDALA

San Martingo etxebizitza babestuak, zozketatuta

- ▶ Onuradunek 15 eguneko epea dute etxea onartu edo baztertze
- ▶ Ezinduendako etxe bat ez zuten zozketatu, eskatzailerik ez zegoelako

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Sanmartinberri sustatzaileak San Martin auzoan egiten diharduen 4. eta 5. zenbakietako etxeak zozketatu dituzte. Bi bloke horietan 30 etxe egingo dituzte, eta horietatik 26 sartu zituzten zozketarako ontzian: bi etxe ezinduendako

ziren eta beste bi Etxebiden lau urteko antzinatasuna dutenendako. Gainerako etxeak kupo orokorrerako eta familia ugarriendako ziren.

Etxebizitza guztiak zozketatu ziren, bat izan ezik: ezinduendako etxeetako bat jabe barik gera-

tu zen. Izan ere, eskatzaile bakarra zegoen, eta bi etxebizitza. Orain, Etxebidek erabaki behar du zer egin etxe horrekin: azken orduan izena eman duen ezindu bati eman edo ordezkoren zerrendan dagoen eskatzaileetako bati eskaini.

Zozketatu barik geratu ziren lau etxebizitza desjabetze egoeran dauden herritarrendako izango dira. "Portalekuako bizilagunekin egindako hitzarmenaren arabera, etxe horiek gorde egingo ditugu desjabetuendako", esan zuen Mikel Biain alkateak.

Ordezkoen zerrenda

Zozketa arazo barik egin zuten. Udal langileak, Mikel Biain alkatea eta notarioa egon ziren. Baita Sanmartinberri sustatzailearen ordezkariak ere; zozketa bukatu ondoren, haiek izan ziren protagonistak: aretoan zeuden onuradunek ego-kitutako etxebizitzaren dokumentazioa jaso zuten: etxearen plano eta informazioa dituen kartazala.

Gehenez 15 eguneko epea dute azken erabakia hartzeko: etxearekin geratu edo uko egin. Etxearekin geratu nahi ez dutenek udal bulegoan eman behar dute horren berri. Bestela, Sanmartinberri hainbat dokumentu aurkeztu beharko dituzte.

Zozketa bukatu ondoren, ordezkoren zerrenda egin zuten: 26 izen atera zituzten. Onartzen ez dituzten etxeak eskainiko dizkiete.

Batzorde informatzaileen ordutegia zehaztu du Udalak: irekiak dira

M.B. | OÑATI

Oñatiko Udaleko Gobernu Taldeak 12 batzorde informatzaile ditu, eta, horiek herritarrei irekitzeko asmoz, batzorde bakoitzerako egun eta orduak zehaztu ditu. Hurrengo bi asteetarako egutegia zehaztu dute: batzorde bakoitza egun eta ordu-tegi ezberdinean bilduko da, bi batzorde edo gehiagotara joan gura duten herritarrek arazorik izan ez dezaten.

Gobernu Taldeak bidalitako oharrean dio "batzorde guztiak irekiak" direla, eta edonork parte har dezakeela.

Osokoa hilaren 21ean

Era berean, hilero egiten den osokoa irekia da. Hil bakoitzeko azken egunean egingo dute, 19:30ean. Udalbatza antolatze oso bereziaren ondotik, hurrengo hilaren 21ean egingo dute.

BATZORDEAK

BATZORDEA	EGUNA	ORDUA
Hirigintza eta Zerbitzuak	18	18:00
Auzoak eta Landa Garapena	18	19:00
Partaidetza, Komunikazioa	19	18:30
Kultura	19	19:30
Sozioekonomia	20	18:00
Ingurumena	20	19:00
Ogasuna	21	17:30
Gobernu batzordea	21	18:30
Osoko bilkura	21	19:30
Gaztedia	26	18:30
Euskara, Hezkuntza, Haurrak	26	18:30
Ongizatea	27	18:30

OHARRAK

TRIANAKO ZOZKETA

Trianako jaietan egindako zozketaren zenbaki sarrituak hauek dira: lehenengo saria -Zelai Zabalen bi pertsonarendako bazkaria edo afaria-, 941 zenbakia; bigarren saria -19 hazbeteko telebista-, 311 zenbakia; eta hirugarrena -urdaiazpiko bat-, 489 zenbakia. Zenbaki sarrituek hilabete balioa izango dute.

PLASTIKO BILKETA

Baserrietan sortutako plastikozko zuria eta beltza batu dute uztailearen 26an. Oñatin lau puntutan jasoko dute: Zañartun Zuazola inguruan, Murgian Asentzio ermitaren ondoan, ETEO atzealdean eta Olabarrietako autobus geltokian. Plastikoa aurreko egunean atera beharko dira, 17:00etatik aurrera.

Abuztuaren 21ean Lizargarate eguna ospatuko dute eta dagoeneko salgai daude bazkarirako txartelak

Lizargarate trikitizale elkarteak antolatuta ospakizuna egingo dute Lizargaraten abuztuaren 21ean. Dagoeneko salgai ipini dituzte bazkarirako txartelak. Hain justu ere, Urbia eta Umerez tabernetan eta Lizargaraten bertan eros daitezke, abuztuaren 14a baino lehen: langileek 20 eurotan eta langabeek 15 eurotan.

Uztailean Txanda txartelarekin erosten dutenek diru-sariak eskura ditzakete zuzenean

Txanda dendarien elkarteak diru-sariak banatuko ditu uztailean, bere txartelari bultzada emateko. Txanda txartelarekin erosten dutenek 100, 50, 20 eta 10 euroko sariak irabazi ahal izango dituzte, elkarteko dendetan gastatzeko. Guztira, 2.000 euro.

3 eta 10 urte arteko umeendako jolasparkea egingo du Ulmak egubakoitzean, hilaren 22an, plazan

Ulma taldearen 50. urteurreneko ekitaldien barruan, 3 eta 10 urte arteko umeak izango dira protagonistak egubakoitzean, hilaren 22an. Euren jolasparkea ipiniko dute plazan, 16:00etan. Puzgarriak, tailerrak eta bi Txantxibiriren bisita izango dute neska-mutikoei.

ARETXABALETA

Kartela eta esaldiak gertu Andramaixak hasteko

Nerea Altuberen irudiak iragarriko ditu jai nagusiak

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA


Abuztuaren 14a gero eta gertuago dago, eta Andramaixak dagoeneko antolatuta ditu Kultura Sailak. Jaietarako deia egingo duten kartela eta esaldiak hautatu dituzte egunotan, eta egitaraua uztaila bukatu aurretik izango dute herri-tarrek esku artean.

Esaldi lehiaketan 66 esaldi

Andramaixetako kartel lehiaketara sei irudi aurkeztu zituzten eta epaimahaiak Nerea Altubek egindakoa hautatu du. 300 euro jaso ditu hark, eta egitaraua egiteko erabiliko dute. Aurkeztutako kartel guztiak Arkupeko sarreran dauzkate, herritarrek ikus ditzaten.

Era berean, Prebentzio Zerbitzuak deitutako esaldi lehiaketak ere baditu irabazleak. 18 talde aurkeztu dira, eta guztira 66 esaldiren artean hautatu behar izan du epaimahaiak. Prebentzio teknikariaren esanetan, prebentzioaren aldeko esaldiak aurten oso gutxi izan dira eta horietako bat ere ez dute saritu. Andramaixetako egitarauan erabiliko den leloa Juan Mari Agirreurretak egin du eta 120 euro jaso ditu saritzat: *Ze poza eta ze giro, Andramaixak berriro!*

Horrez gain, jaiak girotzeko pegatinak egingo dituzte beste hiru esaldirekin: *Andramaixetan beti bero, homo, bi eta hetero!*



Andramaixetako egitarauan agertuko den irudia. | NEREA ALTUBE

–Miriam eta Maitane Arregi–; *Jai eta algara artien, Andramaixetan egun dana kalien* –Maidar Elortza, Jaione Mendikute eta Uxue Balantzategi–; eta *Andramaixak; hasi, hezi; zarena adierazi* –Gorka Arbulo–. Hiru horien egileek 60na euro jasoko dituzte.

Gazte Ekimena lanean

Gazte Ekimena ere jaiak antolatzen dabil, eta iragarri dute abuztuaren 13an hasiko dituztela Andramaixak. Txupinazoa, mozkorraren igoera eta Bizardunak taldearen kontzertua izango dira txosna gunean egun horretan.

Onartuta etxebizitza tasatuen zozketarako behin betiko zerrendak

Onartu dituzte Santa Marina eta Gaztañaduiko etxebizitza tasatuen zozketarako zerrendak eta Udalaren webgunean daude ikusgai. Zozketak uztailearen 27an, eguaztena, egingo dituzte udaletxeko osoko bilkuren aretoan: lehenengo, Santa Marinako etxeetako (16:00), eta ondoren, Gaztañadui kalekoena (16:30).

The Cherry Boppers eta Fiachras taldeak aste bukaeran

Errekan Gora ekimen barruan The Cherry Boppers bilbotarrak izango dira egubakoitzean (22:30) Santa Marinan, jazz eta funk doinu goxoekin.

Zapatuan Fiachras taldea izango da Gernika plazan (19:30). Brigada Criminal eta Txinaski taldeetako kide ohiek osatuta, doinu berritzaileak ekarriko dituzte.

Aretxarteren saria Arrasateko Noelia Fernandezendako izan da

M. A. | ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarteak sariak banatzen jarraitzen du, eta ekainean egindako zozketak dagoeneko badu saritua: Arrasateko Noelia Fernandez –saria jaso zuen haren lagun Angel Valorrek.

Txiki Zoo animalia dendan eman zioten 99.207 zenbakidun txartela Fernandezi, hain zuzen zenbaki saritua, eta egunotan

jaso du 500 euroko balioa duen edertze txartela. Herriko zazpi komertziotan gastatu ahal izango du diru hori –gutxienez bost lekutan erabili beharko du–, nork bere burua zaintzeko konfuetan. Hona komertzioak: Lie opari-denda; L10 eta Irudi ile-apaindegiak; Gemes edertze aretoa; Lasai masajeak; Anitua farmazia; eta Txilarra belar-denda.



Angel Valor arrasatearra 500 euroko edertze txartela jasotzen. | M.A.

OHARRAK

TXISTU ENTSEGUA

Urriaren egingo duten Txistulari Eguna gertatzen dabilta eta txistu entseguak egiten dituzte eguaztenetan (18:30) Arkupen.

'FAST & FURIOUS 5' ETA 'PIRATAS DEL CARIBE 4'

Gaur, *Fast & Furious 5* filma izango da Arkupen (16:30) eta

eguaztenean eta egubakoitzean (21:30) *Piratas del Caribe 4*. Sarrera 2 euro da.

SUKALDARITZA IKASTAROA

Sukaldaritzaren hastapenak ikastaroa egingo dute gaur, eguaztenean eta egubakoitzean Arkupen (10:00-12:00 eta 12:00-14:00). Prezioa 5 euro da.

ESKORIATZA



MIRIAN BITERI

Errepide zatia egoera kaskarrean

Eskoriatzako sarreran, Ibarraundi museoa eta zaharren egoitza artean dagoen errepide zatia benetan egoera kaskarrean dagoela jakinarazi dute hainbat bizilagunek. Zuloak daude han eta hemen, eta automobilarekin pasatzeko "zati arriskutsu" bihurtu dela diote. Horregatik, konponketa beharra duela jakinarazi gura diote dagokionari, eta "lehenbailehen konpontzea" eskertu egingo luketela.

Kiroletako laguntzak eskatzeko epea zabalik

Abuztuaren 22ra arte dute kirol elkarte eta taldeek

M.A. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak onartuta ditu kiroletako dirulaguntzak eskatzeko oinarriak eta joan den egunean argitaratu zituzten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Abuztuaren 22a artean dute dirulaguntzen eskaerak aurkezteko epea kirol elkarte eta taldeek. Oinarriak Udalaren webgunean jarrita daude –www.eskoriatza.net– eta eskaerak Internet bidez ere egin daitezke.

Jarduera programa

Eskaera orria beteta eta hainbat agiri aurkeztu beharko dituzte interesatuek, horien artean 2011rako aurkeztu den jarduera programa eta horren gastu eta sarrerak jasotzen dituen aurrekontua. Gainera, programa zabal baten barruan jarduera zehatz baterako edo

hainbatetarako dirulaguntza eskatuz gero, argi eta garbi adierazi beharko dela hori jakinarazi dute.

Hirusta
Jatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



12 urtera arteko haurrek har dezakete parte umeen euskararen egunean; ez dira aspertuko. | AINARA INUNTZIAGA

ARAMAIO

Udalekuen amaierarekin, badator Zuiako koadrilako umeen euskararen eguna

Koadrilako udalerrietako umeek primeran pasatzeko aukera izango dute uztailearen 19an Izarran; Aramaitik 108 haur eta 12 begirale joango dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Uztailearen 19an Zuiako koadrilako umeen euskararen eguna ospatuko da Izarran. Ekimenaren 12. edizioa izango da. Lehen urteetan Gabonetan egiten zuten ospakizun egun berezia baina, eguraldiagatik eta beste arrazoi batzuk zirela medio, udara pasatzea erabaki zuten antolatzaileek. Helburua da haurrek ondo pasa dezatela; euskaraz, noski.

Udalekuetako haur guztiak

Aurtengoa hirugarren urtea izango da Zuiako koadrilako udalekuetako umeek batera parte hartuko dutena. Horrek esan gura du hainbat ume elkartzeko direla. Aramaitik, adibidez, 108 haur eta 12 begirale joango dira.

Autobusa 09:30ean hartuko dute Aramaion, 10:30erako Izarran egoteko. 12 urtera arteko haurrek

har dezakete parte eta sei urtetik beherakoak heldu batekin joan beharko dira. Udalekuetan parte hartu ez duten haurrak ere joan daitezke baina izena eman beharko dute. Nola? Bada, 945 43 01 67 telefonora deituta edo euskara@cuadrillazuia.com helbidera idatzita. Egitarauari dagokionez, goiz osorako plana antolatu dute. 10:30ean puzgarriak, ludoteka eta tailerrak egongo dira. Gustura izerditu ostean, 12:45ak aldera hamaiketako egongo dute eta 13:00etan txikienek musikaz lagunduta dantzan egiteko aukera izango dute.

14:00etan bueltarako bidaiari ekingo diote. Parte hartzea doakoa izango da.

"Oso egun polita izaten da" Ixaso Aspiazu Zuiako koadrilako Kultura teknikariaren arabera, "oso egun polita" izaten da txikienek: "Oso ondo pasatzen dute eta haur mordoa elkartzen direnez elkar ezagutzeko aukera ezin hobea da". Hala, eguraldiak laguntzea eta aurreko urteetako arrakasta izatea espero dute.

ESANAK

"Oso ondo pasatzen dute eta umeek elkar ezagutzeko aukera ezin hobea da"

ITXASO ASPIAZU
ZUIAKO KOADRILAKO KULTURA TEKNIKARIA

ELGETA

Salbador eguna antolatzeke bilera deitu dute eguenerako

Goimendi auzoan prestatu dituzte Santixau jaiak; domeka iluntzean hasiko dira

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Badator abuztua eta horrekin batera Salbador eguna. Azken urteotan egin den moduan, auzotarrek batzarra egingo dute abuztuaren 6an Salbador ermitaren inguruan egiten den jaia antolatzeke. Egitaraua finkatu eta lanak banatu behar dituzte. Eguenean, uztailearen 21ean, egingo dute batzarra. 19:00etan elkartzeko dira Espaloia kafe antzokian.

Goimendin Santixauak prest

Bada, lan horiek guztiak egingo dituzte Goimendi auzoan eta dagoeneko gertu dute egitaraua. Urtero moduan, Santixau bezperan –aurten domeka– hasiko dira jaiak. Berakatz-za-

pa eta erromeria izango dituzte, 21:30ean hasita.

Santixau egunean, uztailearen 25ean, egingo dituzte ekitaldi nagusiak, 11:00etan hasita. Meza, soka-dantza, herri kirolak eta erromeria izango dituzte, besteak beste. Bertsoetan Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendiluze ariko dira aurten; erromeria, berriz, Jon Ostolaza eta Unai Andonegi trikitalariek egingo dute.

Herri kirolek ere urteroko tartea izango dute aurten Goimendiko Santixauetan. Ruben Saralegi eta Aratz Mugertza ariko dira aizkorarekin eta Urtzi Telleria, harri-jasotzaile lanetan. Bolo txapelketa, berriz, 18:30ean egingo dute.



Salbador Eguna, iaz. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Oporren aurreko azken eguna gaur KZgunean

Aitor Madrid dinamizatzailea izango da bertan ikastaroak eskaini eta argibideak ematen

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gaur, hilak 18, zabalik izango da Pilar kalean dagoen KZgunea (16:00-20:00) eta Aitor Madrid dinamizatzaileak hainbat ikastaro eskainiko dizkie gatzagarreri. Gainera, oporrak hartu aurreko azken eguna izango da gaur, eta gero, irailera bitartean, itxita egongo da.

16 urtetik gorako herritarrek egin ahal izango dituzte ikastaroak eta gehienak motzak izango dira, bi ordukoak. Horien artean daude: sare sozialak, Internet bidez egin daitezkeen tramiteak... Horrez gain, herritarren kezka argitzeko gertu egongo da dinamizatzailea.

Txartel elektronikoa eskatu gura dutenek, ostera, Eskoriatzako KZgunera jo behar dute (943 71 41 65) eta IT txartela eskuratzeko azterketa egin gura

izanez gero, Aretxabaletan dagoenera (943 25 23 51).

Uraren eta zaborren tasak

Bestalde, zabalik dauka Udalak bigarren hiruhilabeteko zabor bilteta, garraio eta tratamendu zerbitzuaren tasa ordaintzeko epea. Uztailearen 4an iragarri zuten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta irailaren 30a arte dute herritarrek ordaintzeko epea.

Era berean, 2011ko bigarren hiruhilabeteari dagokion edateko uraren eta estolderia zerbitzuaren tasa ordaintzeko epea ere zabaldu du egunotan Udalak –uztailearen 15eko GAOean iragarrita–. Hori ordaintzeko epea ere irailaren 30a arte dute herritarrek. Bataren zein besteren ordainagiria helbideratu barik dutenek udaletxera joan beharko dute ordaintzera.

ANTZUOLA

Datorren denboraldirako futbol talde berria sortuko du AKEk

Lau futbol talde izango dituzte: erregional mailakoa, kadeteetan bi eta infantiletako bat

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Antzuola Kirol Elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen duela bi aste. Aurreko denboraldiaren balantzea egin zuten eta datorren denboraldirako talde bat gehiago ateratzeko asmoa azaldu zuten. Tomas Agirre AKEko presidentek azaldu digunez, erregional preferente taldearekin jarraituko

dute datorren denboraldian. Horrez gain, beste hiru talde ere izango dituzte: kadete mailan neska eta mutilen talde bana aterako dituzte; eta infantiletan zortziko futboleko taldearekin jarraituko dute. Bestalde, alebin eta benjamin mailako futbol jokalariekin lanean jarraituko dute.

Hurrengo urterako infantil mailako taldeen arteko txapelketa egiteko asmoa ere azaldu zuten batzar orokorrean. Data zehatzik jarri ez duten arren, txapelketa Aste Santu ostean egingo dute, maiatz inguruan.

Zuzendaritza bera

Zuzendaritzari dagokionez, aurreko denboraldiko zuzendaritzako kideek jarraituko dute oraingoan ere. Patxi Godoy falta da, baina, Agirrek adierazi digunez, gainerako guztiek jarraituko dute lanean denboraldi berrian.

Irailaren 11ko aste bukaeran hasiko du denboraldia futbol talde nagusiak.

TELEBISTAREN IRABAZLEA



JESUS BELAMENDIA AGIRRE (Elgeta)

16 hazbeteko LCD telebista
ZORIONAK!



- TDT integratua.
- PCrako konexioa.
- HDMI.
- USB 2.0.

2011n atera etekina txartelari



AQUARIUM

Donostia, 943 44 00 99
■ Bi erosi eta bat ordaindu
(sarrera garestiena ordainduko da)



AVIA MECA GASOLINDEGIA

Arrasate, 943 79 13 39
■ %2 gasolindegian erregaia erosita.
■ %2 dendako produktuetan



AZKOAGA ENEA HOTELA-JATETXEA

Eskoriatza, 943 71 45 66
■ %8 deskontua asteburuko egonaldietan.
Ohe bikoitz eta egongeladuna hartuz gero,
botila bat txakolin opari (Mendrak).
■ %10 deskontua jatetxeko kartan.



BARCELÓ BIDAIAK

Arrasate, 943 79 70 11/ Bergara, 943 76 08 43
■ 1.000 eurotik gorako erosketekin
"B Plana" OPARI
(kontratatuaren arabera: asteburuko egonaldiak,
irteera gastronomikoak, ongizate txartelak...)



BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta, 943 79 98 21
■ -%15 produktu guztietan. Kontsulta doan.



GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA

Eskoriatza, 943 71 43 41
■ %50 deskontua lehenengo kontsultan.



ESKO SPORT KIROI DENDA

Eskoriatza, 943 71 52 96
■ -%10 produktu eta zerbitzu guztietan



GAES ENTZUMEN ZENTROA

Arrasate, 943 71 27 93 / Bergara, 943 76 94 55
■ %10 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)



CLÍNICA DENTAL BERGARA

Bergara, 943 76 05 77
■ -%10 zerbitzu guztietan
■ -%15 inplanteetan
■ Aho-garbiketa doan.
■ 120 eurotik gorako tratamenduetan
Bazkidearentzat eta familiako batentzat



IKER SUKALDEAK

Arrasate, 943 79 00 43 / Oñati, 943 53 35 48
■ Sukalde osoa erosita, mikrouhin-labea opari.



LILURA EDERTZE INSTITUTUA

Bergara, 943 76 31 71
■ -%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa
(besapekoak opari).
■ -%20 elikagai-intolerantzia proban.
■ -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo
bekainak.
■ -%10 fototerapia bidezko aknearentzako trata-
menduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat



MULTIOPTICAS

Arrasate, 943 79 29 95 / Bergara, 943 76 15 75
■ %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)



NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta, 943 08 21 89
■ -%15 zerbitzu guztietan.



RENAULT AUTOBERRI

Arrasate, 943 71 24 72
■ -%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo pro-
mozioa.
■ -%25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte
osoan.
■ Ordezkapeneko autoa, 20 euro.
Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handia-
goa badugu, bazkideari deskontu handiena eskainiko diogu.



TXIKI ZOO

Aretxabaleta, 943 79 51 15
■ Sei ile apaindegi zerbitzuengatik, zazpigarrena
doan.
■ %50erainoko deskontuak txakur-txamarratan
(izakinak agortu arte)



TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA

Donostia, 943 46 44 00
■ Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan
(ez bada jalegun, jalegun bezpera, zubia edo oporraldia)
■ -%20 zapatu eta domeketan
(ez bada zubia edo oporraldia)
■ -%10 zubi eta oporraldietan.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

Donostia, 943 01 24 78
■ %10 deskontua.



KIROLA

AUTOMOBILISMOA

Zabaletaren Lola BMW autoa berriro ere nagusi Gatzagan gora

- ▶ Gatzagako XV. auto igoera jokatu zuten zapatuan
- ▶ 68 lagunek eman zuten izena proban
- ▶ Ibilbide motza da Gatzagakoa, hori diote pilotuek



Aitor Ramirez oñatiarraren BMW 320 ST autoa "hegan", Gatzagan gora. | JOSETXO ARANTZABAL

ARANTZAZU EZKIBEL | ESKORIATZA

Aurten ere nagusitasun osoz gailendu da Aitor Zabaleta bergararra Gatzagako XV. igoeran. Bergararrak entrenamendu saioa eta bi txanda besterik ez zituen egin; nahikoa izan zituen garai-pena lortzeko.

"Hirugarren txandan ez dut arriskatu; bi autok istripua izan dute eta errepidea olioarekin zegoen. Nire asmoa denbora hobetzea zen baina, egoera horretan ezin denez hobetu, nahiago izan dut erretiratzea", azaldu zuen amaieran. Bergararra onena izan zen lehenengo bi txandetan. Ondoko denborak egin zituen: 1:19,06 eta 1:19,52.

Sailkapenean atzetik Ruben Nogueiras oñatiarra izan zuen. Oñatiarrari ez zioten entrena-

mentu saioan irteten utzi, berandu iritsi zelako irteera puntura: "Hirugarren aldia da hau egiten didatena: irteteko abisua eman eta joaten naizenerako irteten ez utzi". Haserre zegoen Nogueiras.

68 lagun irteera puntuan

Gatzagako igoeran lehiatzeko 68 lagunek eman zuten izena; tartean, 15 bat debagoiendarrek.

Gainera, bertakoak izan ziren sari nagusiak eraman zituztenak: Zabaleta azkarrena izan zen; Nogueiras bigarrena orokorrean eta bere kategorian -7.ean-lehenengoa; 6. kategorian Aitor Ramirez oñatiarra izan zen onena; 5. kategorian, David Ardions oñatiarra; 4. kategorian, Iñaki Alberdi; 10. kategorian, Ander Corcu-

SAILKAPENA

1. Aitor Zabaleta	2:38,590
2. Ruben Nogueiras	2:50,335
3. Aitor Ramirez	2:58,621
4. David Ardions	3:01,078
5. Ibai Zarraga	3:02,079
6. Iñaki Alberdi	3:03,986
7. Aitor Arakistain	3:04,143
8. Joseph Duperou	3:04,479
9. Lebeiti	3:06,278
10. Ander Corcuera	3:06,654
11. Toni Evangelista	3:09,544
12. Jon Etxeberria	3:10,173
13. Igor Orobengoa	3:13,613
14. Jose Antonio Insausti	3:15,257
15. Joseba Gartzia	3:15,767
16. Oier Gorrotxategi	3:16,167
17. Aitor Arnaiz	3:16,919
18. Imanol Oskoz	3:17,538
19. Xike Aiertza	3:19,052
20. Dani Estevez	3:19,404
21. Andoni Mugartza	3:19,486
22. Kepa Karmona	3:19,988
23. Garikoitz Goñi	3:20,289
24. Iñigo Peña	3:20,523
25. Joseba Mitxelena	3:21,281
26. David Delgado	3:22,670
27. Inhar Amenabar	3:23,143
28. Jon Arregi	3:23,267
29. Rafael Diaz-Pulido	3:23,544
30. Emilio Huerta	3:24,272
31. Egoitz Coroso	3:24,541
32. Urbito Asua	3:24,803
33. Josu Gerekiz	3:24,944
34. David Zanbrano	3:25,195
35. Asier Samaniego	3:25,982
36. Aitor Rocha	3:26,668

Sailkapena egiteko pilotu bakoitzaren bi txanda azkarrenak hartzen dira kontuan.

ra arrasatearra; 3. kategorian, Imanol Oskoz; 2. kategorian, Jon Arregi eskoriatzarra; 9. kategorian, Rafael Diaz Pulido; eta, 1. kategorian, Iñaki Racamonde.

Ibilbide motza da Gatzagakoa

Parte hartzaileak gustura zeuden zapatuko probarekin. Azkeneko txandan izan ziren istripuek asko luzatu zuten lasterketa; agian, hori izan zen pilotuek nabarmendu zuten puntu beltz bakarra.

"Azkenerako jendeak alde egin du, baina horrelakoetan ez da jakiten; batzutan gehiago eskatzen dute, eta egiten duzunean joan egiten dira", zioen Zabaletak. "Ibilbide motza da, horregatik egiten dituzte lau txanda", azaldu zuen Igor Orobengoa arrasatearrak. David Ardions oñatiarraren

ustez ere ibilbidea motzegia da. Ibilbideko zati gustukoenei buruz galdetuta, pilotu bakoitzak bereak ditu. Orobengoarendako, esaterako, herria baino lehenago dagoen baserri tartean egiten den jauzia da onena. Gorka Iglesias eskoriatzarrarendako, ostera, goiko zatian dagoen jauzia da ona. Ruben Nogueirasek azaldu du Gatzagako herriko bihurtunea dela polita: "Seigarren martxan sartzen gara, gutxi gora behera 160 kilometro orduko; eta, han, lehenengo edo bigarren martxara jaitsi behar izaten dugu. Gainera, jende asko egoten da ikusten".

Ezusteko barik joan zen proba. Anekdotak izan zen Dorletan zegoen ezkontzako autobus bati pasoa eman behar izan ziotela.



AITOR ZABALETA
IRABAZLEA

"Nik uste nuena baino hobeto joan da lasterketa; entrenamendu saioa gaizki egin dut, saltoka, baina orokorrean iazko denbora hobetu dut. Doluminak eman nahi dizkiot asteen hil den Mikel Pagaldaren familiari".



RUBEN NOGUEIRAS
BIGARRENA

"Hirugarren aldia da berdina egiten didatena, entrenamendu txandan irteten utzi ez. Lehenengo txandan gurpil zaharrak erabili ditut, bigarrenean berriak, eta segundo bat jaitsi dut. Gustura geratu naiz egindakoarekin".



IGOR OROBENGOA
PILOTUA

"Ez nuen espero horrelako denbora onik egitea. Bosgarren geratu naiz 5. mailan. Iaz ez nuen jokatu Gatzagako igoera, hortaz, ez nuen erreferentziarik. Zirkuitu motza da; horregatik egiten dituzte lau txanda".



GORKA IDIGORAS
PILOTUA

"Espero moduan ez naiz ibili, baina ondo. Gurpil berriak jarri ditut eta ez da ondo joan autoa. Iazkoarekin alderatuta, ondo; izan ere, iaz kolpea izan nuen eta txarto bukatu nuen. Denboraldian jokatuako lasterketa guztiak amaitu ditut".

PILOTA | Aitor Mendizabal garaipenarekin estreinatu da profesionaletan | **24**



Ruben Nogueirasi ez zioten utzi pasatzen entrenamenduan. | JOSETXO ARANTZABAL

Zabaleta, podiumean. | ARANTZAZU EZKIBEL



David Ardions, zain. | JOSETXO ARANTZABAL

Aitor Zabaletaren autotik hartutako irudia: Gatzaga herria. | JOSETXO ARANTZABAL



Aukerazko

IBILGAILUAK

salgai



> **FORD FOCUS**
2011 | Diesela | 0 Km



Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

- Ford Galaxy TDCI 21.900 €
2009 | Diesela | Granatea | 59.000 Km
- Ford Fiesta 70 ZP 10.300 €
2010 | Diesela | Urdina | 11.000 Km
- Ford Focus TDCI 140 ZP 20.500 €
2011 | Diesela | Urdina | 0 Km.
- Audi A3 TDI 140 Sportbreak-SPORT 18.900 €
2008 | Diesela | Gorria | 89.000 Km
- Seat Leon TDI 140 ZP 9.700 €
2006 | Diesela | Zuria | 110.000 Km
- BMW 360 D. Automatic Pack M 187 ZP 17.500 €
2006 | Diesela | Beltza | 110.000 Km
- Ford Transit Nugget 2.0 TDCI 41.500 €
KM 0 (Berria) | Diesela | Plata edo aukeran
- FORD FOCUS TDCI 110 ZP 10.500 €
2008 | Diesela | Beltza | 49.000 Km
- FORD KUGA TDCI- 4W 140 ZP 25.500 € €
2010 | Diesela | Beltza | 27.000 Km
- FORD KUGA TDCI- 4W 140 ZP 24.900 € €
2010 | Diesela | Urdina | 16.000 Km



> **Audi A4 2.0 TDI 143 DPF AVANT**
2010 | Diesela | 29.649 Km



- Audi A3 1.9 TDI E DPF ATTRACTION 18.400 €
2010 | Diesela | Grisa | 24.634 Km
- Volkswagen Bora 1.9 TDI CONCEPTLINE 100BHP 7.900 €
2005 | Diesela | Grisa | 131.000 Km
- Renault Clio CAMPUS AUTHENTIQUE 1.5 DCI 65 6.600 €
2007 | Diesela | Txuria | 103.932 Km
- Fiat Punto 1.9 JTD DYNAMIC 3.900 €
2002 | Diesela | Urdina | 176.372 Km
- Audi A4 2.0 TDI E 136BHP DPF 26.900 €
2010 | Diesela | Beltza | 22.552 Km
- Volkswagen Polo 1.2 ADVANCE 10.500 €
2010 | Gasolina | Txuria | 13.805 Km
- Seat Exeo 2.0 TDI 120 PS DPF REFERENCE ST 20.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- Seat Altea XI 1.6 TDI 105 PS STYLE ECOMOTIVE 19.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- Skoda Scout 2.0 TDI Quattro 25.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 5.300 Km
- Seat Leon 1.6 TDI 105 16.500 €
2010 | Diesela | Grisa | 50 Km

Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70



> **Citroen Ds4 eHdi Stop&Start Style 110**
2011 | Diesela | Hickory | 800 Km



SAN ANDRES AUZOA 5.
ARRASATE
TEL.: 943 79 45 22.



Debagoieneko
Kontzesionario ofiziala

- Peugeot 308 16Hdi Sport 110 11.850 €
2008 | Diesela | Beltza | 59.000 km
- Citroen C5 22Hdi EXCL 200CAS 29.900 €
2010 | Diesela | Gris iluna | 2500 km
- Citroen Grand C4 Picasso SX CMP 138 13.850 €
2007 | Diesela | Gris argia | 53500 km
- Citroen Xsara 16i 16V Premier Cp 110 3.800 €
2003 | Gasolina | Gris argia | 142.760 km
- Citroen DS3 Hdi Style 90 16.500 €
2011 | Diesela | Gorria/Beltza | 600 km
- Citroen C5 20Hdi Seduction 140 22.750 €
2011 | Diesela | Gris iluna | 250 km
- Hyundai i30 16CRDi Comfort GLS 90 12.950 €
2010 | Diesela | Txuria | 10500 km
- Hyundai Getz 11i 3 ate 3000 €
2003 | Gasolina | Txuria | 70500 km
- Opel Astra 20TD 80 2000 €
1998 | Diesela | Berde argia | 188365 km

PILOTA

Zaleak gustura utzita hasi da profesionaletan Mendizabal

100 bat lagun joan ziren atzo Antzuolatik Zarautzera, lehenengo partiduan babeserak ematera

EMAITZA

MENDIZABAL-CECILIO

22-14

APEZETXEA-ARRUTI

MIRARI ALTUBE | ANTZUOLA

Garaipenarekin hasi du Aitor Mendizabalek –Mendizabal III aurrerantzean– profesionaletako ibilbidea; garaipen ederrarekin hasi ere. Antzuolatik joandako ehunen bat lagun eta senide kabitu ezinik zeuden Zarauzko pilotalekuan.

Hasieratik aurretik

Zarauzko Arizbataldeko jaialdi barruko lehen partidua jokatu zuen Ceciliorekin bikote, Apezetxea eta Arrutiren aurka. Urdu-ritasuna albora utzi eta hasieratik jarri ziren aurretik (8-0). Poliki-poliki, baina, Apezetxea

eta Arruti ere partiduan sartzen joan ziren eta tantoak egiten hasi. Mendizabal eta Cecilioen akatsak ere etorri ziren gero, berdindu arte (14-14).

Berdinketa horrekin, baina, suspertu egin ziren Mendizabal eta Cecilio eta handik aurrera ez zuten aurkaririk izan kantxan. Bata bestearen atzetik egin zituzten tantoak 22ra iritsi arte; tanto ederrak egin ere, ikusleen gozamenerako.



Zaleak Zarautzera joateko gertu, domeka eguerdian. | JOSETXO ARANTZABAL

Partidu gehiago laster

Behin profesionaletarako saltoa eginda, beste partidu batzuk etorriko dira. Aspeko arduradunek oraindik ez diote ezer esan, baina aste bukaeran besteren bat izan daitekeela uste du Mendizabalek. "Uda partean partidu eta txapelketa asko izaten dira eta debuta egin eta jokatzeko sasoi ona da. Ea hala den eta partidu onak egiteko aukera daukadan".

Mendizabal antzuolarra, pilotari emateko gertu. | ARGAKZI PRESS

AITOR MENDIZABAL | PILOTARIA

"Partidu bakarrarekin ez da ezer erakusten eta lanean jarraitu behar da"

Pozik eta gustura zegoen antzuolarra partidu bukaeran. **Zelan topatu duzu zeure burua?**

Nahiko ondo; hasieran urduri xamar, ohikoa den moduan, jende asko etorri da eta Antzuolatik. Baina behin partiduan sartuta, lasaitu naiz; gainera, hasieratik ondo joan da dena, eta gustura.

Tanto batzuk gainera, politak. Bai, huts batzuk ere egin ditugu baina hiru edo lau tanto politak izan dira eta pozik nago. **Zeuk esan izan duzu ikuskizun polita emateko gogoz zaudela eta hasiera ona izan da.**



Mendizabal III. | GOIENA

Bai, hori da; ondo hastea garrantzitsua da, baina lehenengo partiduarekin bakarrik ez da ezer egiten eta lanean jarraitu behar da. Ea hemen-dik aurrera ere gaurko antzera doazen kontuak.

Profesionaletan moldatuko ote zaren zalantzak dituztenak isildu dituzu gaur?

Ez, partidu bakarrarekin ez delako ezer ikusten. Baina ea lana egin da lortzen dugun gora igotzea, neuk ere erakutsi gura dut eta. **Herritik jende asko joan da.** Bai, Antzuola erdi egon da hemen eta ni oso gustura.

MENDI LASTERKETA

Giro polita izan arren, benetan gogorra dela erakutsi du bigarren Ehunmiliak probak

Javi Dominguez eta Nerea Martinez izan ziren lasterketako garaileak

M.A. | BERGARA

Javi Dominguez gasteiztarra (24 ordu, 49 minutu) eta Nerea Martinez (28 ordu) iruindarra izan dira nagusi bigarren Ehunmiliak. Debagoiendarrak ere izan dira, zazpi bat, Beasainen hasi eta bukatutako ultrarail proba gogorrean.

Bergararra orkatila bihurrituta

Debagoienara bariku gauean, 21:00ak aldera, iritsi ziren: Trekuzetik sartu eta Hirukurutzetatik irten. Iragarritakoa baino 10 bat minutu geroago, 21:05 inguruan, sartu ziren lehenengo korrikalariak Elosuko gunera; azkenak, oster, uste baino 20 bat minutu lehenago, gauerdia pasatxo.

Bergarako Pol-Pol mendizale taldeko kideek eta hainbat zalek egin zieten harrera. Aurpegi onarekin zetozen eta txip-kontrola pasatu ondoren mokadutxoa hartzeko aukera izan zuten indarrak



Korrikalariak Elosura iristen egubakoitzean, zaleen txalo artean. | JOSETXO ARANTZABAL

berreskuratzeko. Gorlako kantina inguruan, gainera, trikitilariak izan zituzten animatzeko. Bergarar batek, baina, orkatila bihurritu zuen inguru horretan, eta erretiratzea erabaki zuela jakinarazi zuten Pol Polekoek.

Iaz ez bezala, giro ona izan zuten korrikalariak, eta hasieratik buruan jarri zirenek erritmo bizia ezarri zuten. Proba gogorra da, baina, Ehunmiliak, eta iazko txapel-dun Imanol Aleson, esaterako, erretiratu beharrean izan zen.



ARITZ GORDO

SQUASHA

Aritz Gordo arrasatearra txapeldun

Debagoieneko squash txapelketa jokatu zuten zapatuan, hilak 16, Arrasaten, eta 17 jokalarik jardun zuten norgehiagoka estuan. Lehen txanda gaitzuztako bi jokalarik koadro nagusirako sailkatu ziren, eta gainerakoek kontsolazioak jokatu zuten; hor, Ricardo Vicente izan zen garaile. Final nagusia, oster, Aritz Gordok eta Igor Ansoategik jokatu zuten eta Gordo nagusitu zen (2-0), Debagoieneko txapela lortuz.

FUTBOLA

La Juvek irabazi du Ipintzako udako futbol liga; penaltietan erabaki da finala, Langostaren aurka

Neurketa 1-1 emaitzarekin bukatuta, penaltietara jo zuten, ligako beste hainbat partidutan moduan

GOIATZ ARANA | BERGARA

Indarrak parekatuta izan ziren bariku arratsaldean Agorrosingo futbol zelaian. Ipintzako udako futbol liga zegoen jokoan, eta finalera ailegatutako La Juve eta Langosta taldeen arteko lehia estua izan zen. Parekotasun hori erakutsi zuen neurketaren azken emaitzak ere: 1-1. German izan zen Langostako golegilea: kontra-erasoan sareratu zuen baloia. La Juveren markagailua leian jarri zuena, ostera, Alberto Dova izan zen; kontra-erasoan egin zuen gola honek ere, falta-jaurtiketa baten ondotik.

Eta hala, 1-1 emaitzarekin, penaltietara jo zuten eta hor erabaki zen finala. 5etik huts bakarra egin zuen La Juvek eta 2 Langostak. Beraz, txapeldun eta txapeldunorde geratu ziren, hurrenez hurren. "Penaltietan, zorte kontua izaten da guztia", azaldu zigun La Juveko jokalaria Andoni Urrutiak, eta gehiago ere esan zigun: "Gogotsu geunden eta, azkenean, lortu dugu! Liga irabazten dugun hirugarren aldia da eta gaizki ohitzen hasiak gaudе, pagotxa bukatzen den egunean...". Esker hitzak izan zituen zaleentzat, harmailetan daudelako beti, euren aldeko oihuak eginez, baina taldeko giro ona azpimarratu zuen ororen gainetik: "Nabarmentzekoa da taldekideon artean dugun giro ona, inoiz ez dugu arazorik izan; adinean aurrera joan arren, lagunartean izugarri laguntzen du".



La Juve taldeko kideak garaipena ospatzen, liga eurena dela erakusten duen koparekin. | JOSETXO ARANTZABAL



La Juveko atezaina Langostakoen jaurtiketa gelditu nahian. | J.A.

Sari banaketa ekitaldia

Finala erabakita, sari banaketari ekin zioten Agorrosingo zelaian. La Juve eta Langostaren atzetik, Badulake eta Santana sailkatu ziren hirugarren eta laugarren. Jokalari onenaren saria La Juveko Ibairentzat izan zen; atezain onenarena, Langostako Contirentzat; eta gol gehien sartu dituenarena Alberto Dovaok (La Juve) eraman zuen.

Kopak txapelketako sariak ere banatu zituzten egubakoitzean: Indar Gorrik irabazi du kopa eta Mongitxarrak izan da txapeldunordea. 7-1 egin zuten, gaur zortzi jokaturako finalean.



GOIATZ ARANA

MIKEL GOTZON FERNANDEZ "POPE"
ANTOLATZAILEA

"Aurreko urteetan baino dezente hobeto portatu dira aurten taldeak"

Umea zenetik ezagutzen du Ipintzako udako futbol txapelketa Mikel Gotzon Fernandez *Popek* eta urteak daramatza antolatzaile lanetan.

La Juvek irabazi du liga. Onena izan da?

Bai. Bazen Elgetako talde bat jokalaria hobek zituena, beharbada, baina gehiegi sinistuta zeuden, eta final laurdenetan kolpea hartu zuten.

La Juvek badu zerbait hirugarrenez irabazteko...

Duda barik. Urte asko daramatzate futboleko elkarrekin jokatzeko eta beterranoak dira dagoeneko!

Zer nabarmenduko zenuke aurtengo txapelketatik?

Jokalarien portaera, orokorrean: aurreko urteetan baino dezente hobeto portatu dira, ez dira nola edo ahala irabaztera etorri, sarrera gogorrik ez dute egin, lesio larririk ez da izan... eta hori dena eskertzekoa da!

ARETO FUTBOLA

Gary Cooper garaile eta Txus United bigarren, Zaldibarko 24 orduko txapelketan

Ondo joan da aurtengoa, nahiz eta domeka goizaldeko euriak giroa apur bat zapuztu

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Penaltietan erabaki zen Zaldibarko 24 orduko areto futbol txapelketa. Gary Cooper eta Txus Unitedek jokatu zuten finala, domekan, 03:00etan. Gary Cooper hasi zen irabazten, 1-0; Txus Unitedek berdindu egin zuen gero, 1-1; Gary Cooper berriz ere aurretik, 2-1; eta Txus Uniteden gola hurrena, 2-2. Partidua bukatzeko minutu baten faltan, hirugarren gola sartu zuen Txus Unitedek, aurretik jarriz, baina txapelketa eurena izango zela zirudienean, hirugarren gola egin zuen Gary Cooperrek ere. 3-3 berdinketarekin, penaltietara jo zuten, eta hor erabaki zen partidua: 3-2 Gary Cooperren alde. Trofeoa eta bil-

dotsa eurentzat. Iaz ere parte hartu zuen aurtengo talde irabazleak baina, jende gaztez osatua, talde nahiko berria da. Eurak izan dira, ordea, asteburuan "egurra" eman dutenak, antolatzaileen esanetan. Ondo ibili da iazko txapelduna -Doble Cero- ere; finalaurrekoetara ailegatu da.

Finala bera moduan, penaltietan erabaki ziren bi finalaurrekoak ere: Doble Cero eta Gary Cooperrek jokatu zuten lehena (3-3), eta La Kanterak eta Txus Unitedek bigarrena (2-2).

Txapelketako irabazle Gary Cooperrek beste sari bat ere jaso zuen: jokalaria onenarena; Imanol del Pozo *Delpo* izan zen errekonozimendu hori eraman zuena.



Aurtengo edizioko txapeldunak eta txapeldunordeak pozik, lorpenarekin. | JON BARANDIARAN

16 talde

Aste barrurako 11 talde zeuden izena emanda, baina bost gehiago apuntatu ziren gero eta, beraz, 16 taldek parte hartu zuten txapelketan: Semen Up, Txus United, Doble Cero, Gary Cooper, La

Kantera, Poli connection, Bixigutarrak, Abokajarro, McAwen Dauen, Lasagabaster, Lahamakun, HLB 108, Dedo Pa Farru, Esfinter de Milar, Aldapa eta Inter Mitente. Talde bakoitzeko 10 lagun, 160 bat guztira -denak mutilak-.

Giro ona

Istilurik, lekuz kanpoko jarrerarik edo sarrera itsusirik ez da izan eta antolatzaileen balorazioa ona da. Soilik 01:00etan hasitako euriak zapuztu zuen zertxobait gaua, lurra labainkor utzita.

TOURRA

Marea laranjarekin bat egin dute ibarreko txirrindularitza zaleek

Oñatitik, esaterako, 100 lagun inguru joan ziren antolatutako bidaiari

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE
Tourreko Pirinioetako etapak laranjaz jantzi dituzte euskal txirrindularitza zaleek; tartean izan dira, debagoieneko zaleak ere.

Oñatitik, esaterako, 100 lagun inguru joan ziren aste bukaeran Pirinioetara. Jai giro bikaina izan dutela azaldu du Mikel Lizarralde, irteera antolatu duen lagunetariko batek. Aste bukarako etapak leku pribilegiatuan ikusteko aukera izan dute. Uztailaren 15ean, egubakoitza, Pau-n hasi eta Lourdesen bukatutako

etapa ikusi zuten. Aubisque eta Soulor igo zituzten ziklistek eta oñatiarrak Aubisquen izan ziren. Zapatuko etapa, ostera, Plateau de Beille-n ikusi zuten.

Markekin egon ziren

Zapatuan, Markel Irizar herriki-dearekin egoteko aukera izan zuten. "Gustura zegoen. Hala ere, aurreko egunean jausi egin zen eta saihets bat hautsita zuen", azaldu du Lizarralde.

Azkeneko urteetan moduan, kamioikada bat jan eta edan eramane zuten: "Hobe da soberan

izatea eta ez faltan", azaldu du Lizarralde zenbat jan eta edan eramane duten galdetuta.

Euskaldunak, pozik

Eguenean, Luz Ardidenen amaitu zen etapan poz handia hartu zuten hara joandako euskaldunek. Samuel Sanchez Euskaltel Euskadiko txirrindulariak irabazi zuen-eta etapa.

Egubakoitzean Thor Hushovd izan zen azkarrena Lourdesko helmugan; zapatuan, Jelle Vanendert belgikarrak irabazi zuen; eta, atzo, Mark Cavendish-ek.



Oñatiarrak arraunean. | JEXUX INZA



Zaleak Pirineotako maldetan. | IÑIGO EZKIBEL



Txirrindulariak Aubisquen gora. | IÑIGO EZKIBEL



Zaleak txirrindulariak animatzen. | IÑIGO EZKIBEL



Aubisque gaina. | IÑIGO EZKIBEL



Aubisqueko maldetan jende asko batu zen. | IÑIGO EZKIBEL



Tropela maldan gora, Col d'Soulour-en. | IÑIGO EZKIBEL



Oñatitik joandako zaleak ikurrinarekin; gainera, trikiti soinuak izan zituzten lagun. | JEXUX INZA

ATLETISMOA

Maialen Axpe | Pertika jauzian Espainiako txapelduna

"Entrenatzen sufritutako guztia ahaztu egiten da saria lortzerakoan"

- ▶ Valentzian jokaturako Espainiako txapelketa irabazi zuen Axpek
- ▶ Aurrera begira, Joko Olinpiarrik ditu begiz jota arrasatearrak

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Maialen Axpe bedoñarrak Espainiako pertika jauzia irabazi zuen joan zen aste bukaeran Valentzian. 3,75 metroko jauzia egin zuen, eta horrek eman zion garaipena; hala ere, esan digu garaipen gazia izan dela. Europako txapelketa jokatzeko marka ez zuen egin-eta.

Zorionak!

Eskerrik asko.

Espero zenuen horrelako emaitzarik?

Espero nuen txapelketa irabaz nezakeela, baina nik marka egitea gura nuen eta hori ez dut lortu.

Marka hobetzera joan nintzen. Pista estalian nire marka 3,82 metro da eta Europako txapelketara joan ahal izateko marka 3,85 metro da. Hori lortzeko entrenatzen ibili naiz; Espainiako txapelketa oso ondo hasi nuen eta konturatu orduko 3,85eko neurria geneukan egiteko. Baina ezin izan nuen egin, eta hiru zentimetrogatik ez naiz joango Estonian jokaturako den txapelketara.

Hurrengo urtean izan beharko du!

Bai, hurrengo urtean Munduko txapelketa jokaturako da; ea zortea dudan!

Esan behar da ez dela lehenengo aldia Espainiako txapelketa irabazten duzuna.

Kadete mailan jokatu nuen lehenengo Espainiako txapelketa, orain dela bost urte. Gero, urtero joan izan naiz Espainiako txapelketara. Iaz, Nerjan Espainiako txapeldun geratu nintzen eta eskola artean ere bi aldiz izan naiz txapelduna.

Nolako izaten da zure egunerokotasuna?

Astean bost egunetan entrenatzen dugu. Egun bakoitzean gorputzeko atal bat lantzen dut. Pisua egiten dut, serieak, ariketak, jauziak... Hala ere, entrenamenduak moldatu egiten ditugu Espainiako txapelketaren arabera.

Egunero entrenatzearen gogorrena zer izaten da?

Gogorrena da neguan hemen entrenatu beharra. Mojategin hotz handia egiten du, eta pistak kanpoan daudenez... Eskatu genuen baime-na negu partean koltxoneta Musakolako frontoi batera sartzeko, baina ez ziguten baimenik eman. Neguan ezin da saltorik egin; hotz eta euria egiten du.

Neguan, hortaz, ez duzue saltorik egiten?

Kanpora joaten gara, Donostia-ra.

Arrasaten maila ona duzue pertika jauzian.



Maialen Axpe Mojategiko pistetan pertika eskuan duela. | ARANTZAZU EZKIBEL

"Kadete mailan jokatu nuen Espainiako lehenengo saria"

"Mojategin neguan entrenatzea oso gogorra izaten da; hotz egiten du"

"Ez dugu inongo laguntzarik izaten pertikak erosterako orduan"

Malen Ruiz de Azua dago, emaitza onak lortu dituena. Gainera, beste bi neska hasi berri dira eta Iztar ere badabil.

Nola hasi zinen atletismoan, eta batez ere pertika jauzia egiten?

Lagun batek animatuta hasi nintzen atletismoan. Urtebete geroago Jonathan Perezekin hasi nintzen pertika entrenatzen.

Nire asmoa ez zen hau egitea, baina Jonathanek animatu ninduen; pertika egiteko balio nuela esan zidan.

Zerk erakarri zaitu kirol honetan jarraitzeko?

Garbi dago kirol honetan asko entrenatu behar dela eta gogorra dela. Mojategin egunero egoten gara gainera; udan, adibidez, lagunak igerilekuan daudenean, gu entrenatzen egoten gara. Baina,aldi berean, Espainiako txapelketa bat irabazteak sentiarazten dizuna izugarria da. Hortaz, sufritu duzun guztia ahaztu egiten da horrelako zerbait lortzen duzunean.

Ze ezaugarri behar dira pertika jauzian ondo ibiltzeko?

Indarra behar da. Hanketan, hasierako korrika tartea ondo egiteko; eta, gerritik gora ere nahiko indartsua izan behar duzu.

Pertikak aldatu egiten dituzue hobetzen zoazten heinean.

Hori beste kontu bat da. Mojategiko pistak egin zirenean bederratzi pertika eman zizkiguten; baina, gaur egun nik ezin ditut erabili hasieran erabiltzen nituen berak. Aurrera noan heinean pertika berriak behar ditut: luzeagoak eta gogorragoak.

Alde horretatik, kirol garestia dela esan daiteke. Beste herri batzuetako elkarteek –Madril, Bartzelona...– pertika askoz gehiago dituzte. Baina, guk ez dugu inongo laguntzarik izan eta pertika guztiak guk lortu ditugu. Hori dela-eta, Donostiako Athletico San Sebastian taldean nago. Nik kobratzen dudana dirua erabiltzen dut pertikak erosteko.

Bizitzako beste arlo batzuetan bezala, pertika jauziak ondo egiten ikasi arte hainbat eroriko izango zenituen.

Bai, hasi nintzenean hainbat eroriko izaten nituen. Gainera, hasi ginenean Iturripen entrenatzen genuen eta han ez zegoen koltxonetarik... Egia esan, orain beldur gehiago dut; lehen ez genuen beldurrik izaten.

Kirol honetan oso garrantzitsua da beldurrik ez izatea. Korrika zozenean eta koltxonetara iristen zarenean beldurturik baldin bazoaz, geratu egiten zara eta ez duzu daukazun guztia ematen.

Euskal Herri mailan Naroa Agirre da erreferente.

Bai, beti jarraitu izan dugu. Gainera, Donostian entrenatzen dugunean berarekin egoten gara. Bera izan da onena.

Aurrera begira zein izango da zure asmoa?

Orain oporrak hartuko ditut, eta irailan berriro hasiko naiz entrenatzen. Aurrera begira, baina, Joko Olinpiarretan parte hartzea gustatuko litzaidake. Hori izango litzateke gehien gustatuko litzaidakeena.

Aitatasunaz eta amatasunaz gozatzeko, kalitatezko denbora

Harremana sendotzeko beste komunikazio modu bat erabili behar dugu

LARRAIZ ZEBERIO | ARRASATE

Seme-alabekin intimitatezko eta kalitatezko denbora bizi izateko tartek hartzeko gomendioa egiten du Koldo Gilsanz psikologoak *Guraso.com* atarian. Azaltzen duenez, denbora hori bi pertsonaren artean gertatzen da: "Aldizka guraso bakoitzarekin eta anai-arrebarik gabe". Erosketatxo batzuk egin, aisialdia partekatu edo etxeko egongelan egon... non edo zertan gauden berdin dio; nola gauden da gakoa, Gilsanzen esanetan. "Familia antolatzen bada, haien tartekaz disfrutatu ahal izango dute", dio Gilsanzek. "Une horiek kalitatea ematen diote harremanari".

Komunikatzeko beste modua

Gilsanzek gomendatzen du aukera hori baliatzeko semearen edo alabaren egoera emozionalari erreparatzeko. "Entzun galdetzen jarraitzeko eta ez erantzunak emateko (...), jakin-minez gerturatu bere esperientziara (...), aholkuak eta aginduak beste baterako gorde eta ez epaitu haurraren esperientzia. Aukera aprobetxatu umearen baloreak eta joerak eza-gutzeko". Ez dute une luzeegiak izan behar, eta denak ez dira kontaktu sakonekoak izango. "Garrantzitsuena da haurrak ikustea berarentzat gaudela, eta jolasak zein errietaz aparte, badagoela beste komunikazio modu bat".

Gurasoon papera

Gilsanzek argi dauka: "Gurasoon papera ez da seme-alaben uneoroko pozaz eta ongizateaz arduratzea. Ez gara haren laguna. Haren gida izan behar dugu, beharra duenean hel dezakeen eskua". Gaur egungo gurasoengan egoera estresagarri ugari izaten dira; gizarteak igurikapen handiak ditu. Ondo ikusia dago guraso biek etxetik kanpo lan egitea, baina aldi berean guraso inplikatua izatea eskatzen da; ikastetxeko bileretara joatea, umeekin jolastea... "Horrelakoetan frustrazioa eta zama ager daitezke eta horrek gure guraso indarraren galera ekar dezake", dio.



Aita-semeak parkean pasean. | TONYMADRID PHOTOGRAPHY



Neskatala, ikasten. | LUXITOP

Gaitasun handiko haurren hezkuntza-behar bereziak

Fanjac Euskadi eta Aupatuz elkarteek irakasleei eta gurasoei informazioa eskaintzea dute helburu

L.Z. | ARRASATE

Hezkuntza Ministerioaren arabera, ikasleen %2-5 adimen gaitasun handikoak dira. Aparteko adimena eta ikasteko modu berezia dituzte eta hezkuntza-erantzun bereziak behar dituzte. Ezjakintasunak, mitoek eta estereotipo faltsuek erantzun egokia eskaintzea oztopatzen dute askotan. Hala, haur horien senideek Fanjac Euskadi eta Aupatuz elkarteak sortu dituzte: "Gure seme-alabak ikaskideekin batera haztea nahi dugu, betiere euren ikasteko modu berezia aintzat hartuz".

Lehen urratsa, identifikazioa

Garrantzitsua da haur horiek lehenbailehen identifikatzea. Euren adimenari egokitutako estimulazioa behar dute, asper ez daitezten eta motibazioa gal ez dezaten. Bestalde, oso sentikorak dira eta konturatu egiten dira *ezberdinak* direla. Ohikoa da gainerako ikaskideen bazterketa sailhesteko ume horiek trebetasun intelektualak eta sozialak ezkatzea. Hezkuntza neurri egokiak ez hartzeak haurra gelan integratzea eragotz dezake eta, era berean, jokabide desegokiak,

arretarik eza, antsietatea, autoestima txikia eta, batzuetan, depresioa eragin ditzake. Hala, adimen gaitasun handiko haur batek errendimendu akademiko urria izan dezake.

Hartu beharreko neurriak

Garrantzitsua da eskolako talde pedagogikoa eta gurasoak jakinaren gainean egotea, baita eskolari dagokion Berritzegunearekin harremanetan jartzea ere. Berritzeguneak emango ditu haurraren hezkuntza-premiak zeintzuk diren zehazteko lehenengo urratsak.

Hortik aurrera, gelan har daitezkeen neurriak asko dira; haurra ikasturte bat edo gehiago aurreratzea, curriculumak egokitzea... Gaitasun handietan adituak diren profesionalak ere badaude, eta orain, familiak eta ikastetxeak orientatzeko Fanjac Euskadi eta Aupatuz elkarteak ere bai.

"Hiru hizkuntza hitz egin nahi ditugu; bat, gutxitua"

L.Z. | ARRASATE

Hezkuntza Sailaren marko hirueleduna izan dute hizpide Goiena telebistako azken guraso tertulian. Mondragon Linguako Joseba Bartolomek hainbat argibide eman zituen saio hartan. "Ingelesaren eza-gutzan pausoak eman behar ditugula ez du inork ukatzen", esan zuen, "baina ezin dugu ardura hori eskolaren bizkar utzi. Gizarte bat eleanitza izateko indar asko batu behar dira; eskola, komunikabideak, familiak...". Bartolomek Euskal Herriaren egoera oso berezia dela esan zuen: "Hiru hizkuntza hitz egin nahi ditugu; horietatik bat, gutxitua. Europan oso leku gutxitan gertatzen den egoera da". Gizarte osoaren erronka dela azpimarratu zuen.

Inplikazioa eta esfortzua

Joerak landu behar direla adierazi zuen Bartolomek eta ezin bestekotzat jo zuen hezkuntza-aren sektorean egiten ari den hausnarketa maila gizarteko gainerako esparruetara eramatea. "Hezkuntza Sailak egoeraren diagnosi sakona egin behar du, eta beharrak ondo finkatu. Proiektu honek denbora, motibazioa eta esfortzua eskatuko ditu eta erabakigarriak izango dira irakasleen inplikazioa eta motibazioa. Baina ez soilik irakasleena, gurasook ere eredu izan behar dugu".

Iparrorratza ikasketei buruzko orientazio-zerbitzua

Iparrorratza ikasketei buruzko euskarazko doako *on line* orientazio-zerbitzua da. Hiru eguneko epean ematen ditu erantzunak eta bereziki zuzenduta dago ikasleei eta gurasoei: unibertsitate sartzeko dagoen ikasleari, unibertsitateko ikasleari eta unibertsitatea bukatzean dagoen ikasleari. Lotura: unibertsitatea.net.

Haurren zaintzarako Jaurlaritzaren egitasmoari kritikak

LAB, STEE-EILAS, Bilgune Feminista, Euskadiko Haur Eskola Pribatuen Elkarte Giarbi eta Haurreskola Partzuergoko langileek egitasmoaren gaineko kezka erakutsi dute. Arriskuan ikusten dituzte euskara, langileen lan baldintzak eta umeen ongizatea. Hezkuntza Sailari eskatu diote Haur Etxeak egitasmoa bertan behera uzteko.

Azken neurketek diote haur gizen gehiago dagoela

Aladino izeneko ikerketan 6-10 urte bitarteko 7.923 neska-mutikori egin diete jarraipena eta %45,2k gehiegizko pisua dutela antzeman dute; gizentasun arazoak ditu %19,1ek. Ikerketa horren arabera gaitasuna gehiago izaten da gizarte maila txikiko familietan, eta zerikusia du umeek bazkaria etxean edo eskolan egiten duten.

KULTURA

Koko Jean Davisen ahotsak txunditu eta bete egin zuen Monterron parkea

- ▶ Bartzelonako The Excitements taldeak ordu eta hogeita minutuko saioa eskaini zuen
- ▶ Monterron parkera joandako ikusleek dantzan amaitu zuten egubakoitzeko saioa

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Ordua baino zerbait beranduago hasi zuten saioa The Excitements taldeko kideek. Ordurako Monterron parkeko atzealdea, jesarri-egoteko lekua, bete egin zen; ez ordea aurrealdea, dantzarako lekua.

Eszenatokira taldeko mutilak igo ziren lehenengo. Guztira sei musikaririk osatzen dute taldea: haize bikotea, gitarra bi, baxua eta batera.

Abeslaria, bikain!

Lehenengo abestia instrumentala izan zen; Monterronera joandakoak abeslaria noiz irtengo itxoiten zeuden, eta halako batean taldeko izarra agertu zen eszenatokian: Koko Jean Davis. Ahots aparta duela eta artista bikaina dela erakutsi zuen Jean Davisek kontzertuak iraun zuen ordu eta hogeita minutuetan.

Bartzelonakoek euren lehenengo lana, urte hasieran argitaratutakoa, eskaini zuten Monterronen. Ez dira eurak sortutako abestiak, talde ezagunen bertsiok dira. Besteak beste, Etta James, Ike & Tina, James Brown... bezalako musikari handien abestiak entzun ziren Monterronen: *Take the bitter with the sweet*, *Never gonna let you go*, *Let's kiss and make up* eta *I do the jerk*, besteak beste.

Ikusleen konplizitate

Kontzertua aurrera zioan heinean, jendea eszenatoki aurrera mugitzen hasi zen eta, abeslariaren



Sei musikari bikain, eta abeslari aparta; horiek osatzen dute The Excitements taldea. | JOSETXO ARANTZABAL

dantzarako grinak kutsatuta, ikusleek ere gerra eta oinak mugitu zituzten.

Batez ere, aurrealdean zegoen Legazpiko koadrila batek jarraitu zuen Jean Davisen dantzarako erritmoa. Abeslariak ikusleen konplizitatea bilatu nahi izan zuen kontzertu guztian zehar;

hala, "everybody say..." bezalako esaldiak erabili zituen behin baino gehiagotan. Jendeak erantzuten zuen, baina argi geratu zen ingelesa ez dela debagoiendarren hizkuntza nagusia –izan ere, kataluniarrak izan arren, ingelesez berba egin zuen denbora guztian abeslariak–.

Azkeneko bisak

Kontzertua amaitzeko hiru aldiz irten zen eszenatokitik abeslaria, eta esan behar da ikusleen txalo artean sartu zela berriro ere. Taldekideak abisatuta zeuden bisak arriskutsuak izan daitezkeela Arrasaten; hau da, eurak joan ordu-

ko, jendeak ere alde egin dezakeelako. Hala ere, atzokoan, bisek balio izan zuten jendea jesarri zegoen lekutik jaiki eta aurrealdera joateko. Hala, kontzertuko azkeneko abestietan ia jende guztia zutik egon zen, aurrealdean, musikaren erritmoan dantza egiten.

KOKO JEAN DAVIS | ABESLARIA

"Soula entzuteko ohiturarik ez dutenek ez dakite zerekin egingo duten topo"

Ordubete pasa geratu barik dantzan eta kantuan ibili ostean tartetxo bat hartu zuen Koko abeslariak gurekin egoteko. Monterronen gustura egon zirela azaldu zuen eta jaiarekin jarraitzeko gogoz zegoela gaineratu zuen.

Zela joan da Monterroneko saioa?

Hasieran pixka bat zaila izan da

baina esan behar da ondo joan dela. Beti izaten dira zailak hasierak; izan ere, jendeak ez du jakiten zerekin topo egingo duen. Soula entzuteko ohitura daukenez badakite zer den, baina gainerakoak zer gertatuko den zain egoten dira. Kontzertua aurrera joan ahala, animatu da jendea eta oso ondo pasatu dugu. Beti pasatzen dugu bikain!

Arrasatearrak nolako ikusleak dira?

Jendea ondo portatu da. Esan bezala, kosta egin zaie kontzertuan sartzea baina behin sartutakoan ondo joan da dena.

Arrasaten aurkeztu duzuen lehenengo diskoa da.

Bai, gure lehenengo diskoko abestiak eskaini ditugu; hain justu, orain dela sei hilabete atera genuen lehenengo lan hori. Ez dira bertsiok originalak, baina oso ezagunak ez diren abestiak dira. Besteak beste, Natalia Meier, James Brown, Tina Turner... abeslari handien lanak eskaini ditugu.

60ko hamarkadako musika da egiten duzuenena.

Bai, 60ko hamarkadako ritman blues musika egiten dugu; ritman blues gordina, esango nuke.

Zeintzuk dira zuen erreferentziak musika egiterakoan?

Aurrez esandakoak dira. Asko ditugu, baina nire gogokoena James Brown eta Tina Turner izango liriteke. Batez ere, Tina Turner gaztea zen garaia; haren ikuskizun motak gustatzen zaizkit.

Nondik nora zabiltzate lehenengo disko honekin?

Orain Espainia eta Frantzia aldean gabilta diskoa aurkez-

ten. Bi aste egin ditugu Frantzian eta oso ondo hartu gaituzte. Sei hilabete besterik ez daromatxagu eta oso pozik gaude; jendeak jarraitu egiten gaitu.

Beste herrialde batzuetara joateko asmorik baduzue?

Bai, asmoa da Italia, Alemania... beste herrialde batzuetara ere eramatea guk egiten dugun musika.

Jendeak gustura entzuten du horrelako musika mota. Ez da hala?

Bai, musika mota honek ez ditu beste musika batzuk dituzten

jarraitzaileak, baina jendea gustura geratzen da. Inoiz ez dut jakiten kontzertu batean zer gertatuko den. Hala ere, soulak zale asko ditu; oso *underground* da, baina, era berean, musika garbia. Horregatik du gustuko

"60ko ritman bluesa egiten dugu, era gordinean"

jendeak horrelako musika.

Geratu barik ibili zara taula gainean. Hori indarra!

Bai, horrela izaten da. Oso gogoko dut... eta gazte izateak hau dakar, indarra horrela ibiltzeko. Orain, deskantsatu beharrean, jaiarekin jarraituko dut!



Malatu taldea Jose Arana ikastetxeko jolastokian, egubakoitzean. | JOSETXO ARANTZABAL

Malaturen doinu goxoeak girotu zuten Errekan Gora

Zapatuan, Amurrioko Sokaide taldeak doinu dantzagarriagoak ekarri zituen Apotzaga auzora

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Aitzorrotz kultur elkarteak antolatutako Errekan Gora ekimena aurrera doa, eta beste bi kontzertu izan dira aste bukaeran: Malatu taldea egubakoitzean, Jose Arana ikastetxeko jolastokian; eta Sokaide, Apotzaga auzoan. Aurrekoetan legez, jende asko hurreratu zen bietara eta giro ezin hobea sortu zuten.

Doinu lasalak gau giro goxoa

Jazz erritmo goxoeekin eman zieten ongiatorria Malatu taldekoek eskoriatzarrei, egubakoitz gauean. 100 lagunetik gora elkartu zen Ganuza etxearen atzeko partean, adin guztietako entzuleak elkartu ere: gazte, heldu eta nagusi, tartean umeak zirela. Mikel Gatziaeren gitarrak Iñaki Gabilondoren ahotsa izan zuen lagun hasieran eta,

poliki-poliki, gainerako instrumentuek ere bat egin zuten haiekin. Hala, gau giro goxoari doinua jarri zioten Gasteiz eta Leintz Gatzagako lagunak, ilargia laino artean ezkutaketan zebilela.

Doinu lasaiekin hasi arren, poliki-poliki dantzagarriagoak etorri ziren, eta *Karramarroen saltsa* abesti alai entzule "txiki parranderoei" eskaini zien Gabi-

londok. Bossa, swinga, afrikako erritmoak... eskaini zituzten eta eskoriatzarrak ere animatuz joan ziren. Laboaren ahotsa gogorazten duen Gabilondok naturari abestu zion hainbatetan, itsasoa protagonista duen *Bare bare* kantuan, esaterako; abesti alaiak ekarri zituen beste batzuetan: *Sugeak kantoietan*; eta intimoagoak hurrengoan: amari eskainitako *Maitatua sobera*. Gabilondok, gainera, Laura Ortega piano jolearen ahots indartsua izan zuen lagun hainbatetan.

Folk doinuak Apotzagan

Zapatuan, ostera, Apotzaga auzora joan zen Errekan Gora, Sokaide talde amurriarraren doinuekin gozatzeko. *Ortozik* izeneko lana aurkeztu zuten eta, folka oinarri izan arren, hainbat estilotako doinuak eskaini zituzten. Soka eta haize musika uztartuta, biolina eta trikitia hain zuzen, eta gitarra, baxua eta bateria lagun hartuta, Naroa Gaintzaren ahotsak borobildu zituen abestiak. "Orain arteko kontzertuak lasaia izan dira, eta gaurtik aurrera dantzagarriagoak datoz", jakinarazi zuen Iñaki Kortazar antolatzailleak zapatuan.

Fiachras, datorren zapatuan

Datorren aste bukaeran esango dio agur aurtengo Errekan Gorak, beste bi kontzertu eskainita. Egubakoitzean, hilak 22, The Cherry Boppers talde bilbotarrak dantzan jarriko du Santa Marina plaza, jazz eta funk doinuekin.

Zapatuan, hilak 23, ostera, Brigada Criminala eta Txinasko taldekide ohiek sortutako Fiachras taldeak Gernika plaza girotuko du. Punk rockarekin nekatuta, Irlandako folk eta taberna giroko kantu nostalgikoak ekarriko dituzte *Hiltzera goaz* lana aurkezterakoan.

IÑAKI KORTAZAR
ANTOLATZAILA

"150 eta 200 lagun artean elkartu dira kontzertu guztietan"

Errekan Gora ekimenaren laugarren edizioa da aurtengoa eta antolatzailleek uste dute "errotzen dabilen ekimena" dela. Eskoriatzarrak, gainera, "kontzertu horien zain" egoten direla diote.

Zelan doa Errekan Gora?

Oso ondo; 150 eta 200 lagun artean elkartu dira kontzertu gehienetan eta pozik gaude.

Gehienak eskoriatzarrak izango dira, ezta?

Bai, baina kanpotik ere badatoz. Audience taldearen kontzertuan, esaterako, kanpokoak gehiago izan ziren.

Eszenatoki ezberdinak topatzen jarraitzen duzue...

Bai, kontua da xarma duten herriko guneeetan egitea kontzertuok, aire librean beti, nahiz eta gero eguraldiari begira egon behar; eta aurtengo apustua Apotzaga auzoan egitea izan da.



GOIENA

KRONIKA

Hard core zaleak aseta

M.A. | OÑATI

Hard corea gustuko dutenak elkartu ziren zapatuan Oñatiko gaztelekuan. Kanpotarrak izan ziren gehiago, batez ere Jingo de Lunch taldearen zaleak. Eta ez zien hutsik egin Alemaniatic etorritako taldeak.

Fly Shit bergararrek ekin zioten kontzertuari; baxu-jotzaille berriarekin etorri ziren, gainera. Hard corean kantu borobilak egiten dituen taldeak, doinu gogorrak eskaini zituen hasiera-hasieratik eta zaleek eskertu egin zuten hori.

la bi ordu geratu barik

Berlingo Jingo de Lunch-en txanda izan zen gero, eta zaleek gozatu ederra hartu zuten. 90. hamarkadan etorri ziren lehenengoz Euskal Herrira -baita asko maiteminduta utzi ere- eta oraingoan gitarrista berriarekin zetozen; orduan bik egiten zuten lana eginaz, gainera. Hard corearen indarrarekin kontrastea egiten

FITXA	
MUSIKA	
JINGO DE LUNCH ETA FLY SHIT	
Estiloa:	Hard corea.
Non:	Oñatiko gaztelekuan.
Eguna:	Zapatua, hilak 16.
Iraupena:	3 ordu.
Ikusle kopurua:	120 lagun.

duen hard rock doinuak landu zituzten, heavytik gertu dauden gitarrarekin. Eta kantariaren ahotsak txundituta utzi zituen entzuleak, izugarriko melodia duen ahots erregistro pertsonalak oraindik bere horretan dirauela erakutsiz.

Ordu eta erdi pasako kontzertua eskainita ere zaleek gehiago gura zuten, eta bis pare bat egin zituzten; bigarrena -gitarra eta baxu joleak instrumentuak aldatuta- independentziaren alde borrokan dabilzanezi eskaini zieten.



Berlingo Jingo de Lunch taldea Oñatiko gaztelekuan, zapatuan. | JOSETXO ARANTZABAL

Aritzeta abesbatza, gaur, Santa Marina parrokan

M.A. | BERGARA

Aritzeta abesbatzak emanaldia eskainiko du gaur, astelehena, Bergarako Santa Marina parrokan (19:30), zaindariaren eguna ospatzeko. Izan ere, Santa Marina da gaur, uztailak 18.

Imanol Urtzelaik zuzenduta, *Panis Angelicus*, *You are the new day*, *Amazing Grace*, *Xarmengarria*, *Neskatz'ederra* eta *Habanera salada* eskainiko ditu Bergarako abesbatzak beste batzuen artean.

Aritzetak hainbat kontzertu eskaini ditu orain arte; ekainaren 25ean, Bergarako orkestraren 25. urteurreneko ospakizunean, azkena. Eta hurrengoa Gorliz (Bizkaia) dauka datorren egubakoitzean, hilak 22.

KRONIKA

Bueltan, Kataluniatik Arrasatera

FITXA

KONTZERTUA

COR ALBADA

Generoa: Abesbatza.

Non: Kulturateko areto nagusian.

Eguna: Domeka, hilak 17.

Iraupena: Ordubete.

Ikusle kopurua: Aretoa ia beteta.

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Oraingoan kataluniarrei egokitu zaie Euskal Herrira etortzea. Arrasateko Goikobalu Gazte abesbatzako kideak ekainean egon ziren Bartzelonako Euskal Etxean kontzertua eskaintzen eta atzokoa elkartruke programaren saioa izan zen. Bartzelonako Cor Albada abesbatzak txundituta utzi zituen Kulturateko areto nagusian batutako guztiak.

Modu bitxian hasi zuten kontzertua: taula gainera igo barik, koadro bat osatuz, ikusleak inguratu zituzten eta horrelaxe abestu zuten lehenengo kantua: *Somebody Is Knocking*.

Jazz doinuak amaitzeko

Behin taula gainera igota, kontzertuak bi zati izan zituen, argi eta garbi. Lehenengo zatian doi-



Cor Albada abesbatza Kulturateko areto nagusian. | JOSETXO ARANTZABAL

nu lasaiak eskaini zituzten gaztelaraz eta katalunieraz (*Rossin-yol, Ton pare no te nas, Cacó del Faroner, Cancó de la Sabatera eta Nocturnos de la Ventana*). Azken abesti hau amaitzerako, txalo zaparrada itzela izan zen.

Kontzertua bukatzeko, Pablo Larraz zuzendariak hasieratik iragarri zuen moduan jazz doinuak

aukeratu zituzten; aukera ezin aproposagoa (*A Duke Ellington Suite, That Lonesome road, Blue Moon, Java Jive eta In the Mood*). Jazz doinuekin eskarmentu handia dutela erakutsi zuten.

Kontzertuaren bi zatietan, Pablo Larrazek pianoa jotzearekin batera zuzendu zuen Bartzelonako abesbatza.

Martinika irlatik iritsitako balleta ikusteko aukera, Monterronen

A.B. | ARRASATE

Karibetik iritsitako musika eta dantzak ikusteko aukera egongo da eguenean, uztailak 21, Arrasateko Monterron parkean. Martinika irlako Ballet Folklorique Tifermasc taldeak ikuskizuna eskainiko du, 22:30ean hasita.

Dantzari gazteak

Tifermasc elkarteak 1991an sortu zen Martinika irlako Le Trois-Ilets hirian. Dantza taldea da elkartearen motorra; izan ere, diru-laguntzak jasotzen dituzte bai herrialdean bertan, eta baita kanpotik ere. Gaur egun, 25 gaztek dihardute taldean dantzan eta 9 eta

20 urte bitartekoak dira guztiak. Dantzariak Tifermasc orkestrarekin batera eboluzionatzen dute: danborrak, haize instrumentuak, pianoa eta baxua dituen orkestra, hain justu ere.

1998tik hona Jean-Claude Lamorandiere koreografoak zuzentzen du dantza taldea eta Martinika irlako eta, orokorrean, Karibeko dantza tradizionalak interpretatzen dituzte.


Eguraldiak laguntzen badu behintzat, Karibetik iritsitako ikuskizun koloretsu eta alaia ikusteko aukera izango da eguenean, Arrasateko Monterron parkean.

'Academia Rushmore' eta 'Zombies Party' filmekin amaituko da uztaileko zinekluba

A.B. | BERGARA

Uztaila umorezkoa izaten ari da Bergarako zineklubean eta horrelaxe jarraituko du. Eguazten honetan, hilak 20, *Academia Rushmore* filma ikusteko aukera izango da. 1998an Mark Mothersbaughek zuzendutako filma da, gazteen ametsen inguruko satira egiten duena.

Uztailearen 27an, berriz, *Zombies Party* filmaren txanda izango da. Zombien gaineko komedia erromantikoa da; neskalgun ohiari pertsona heldu bat dela erakutsi beharko dio Shaunek. Edgar Wright da zuzendaria. Film guztiak Bergarako gaztetxean izango dira, 22:30ean.



TWITTER
kontu bana,
herri eta gai
bakoitzeko

Egin zaitez jarraitzaile!

Goiena Komunikazio Taldea: @goiena.

Kontu horretan Goienaren inguruko berriak, telebistako programazioa, azken ordukoak... jasoko dituzu.

HERRIAK

Antzuola: @antzuolagoiena
Aramaio: @aramaiogoiena
Aretxabaleta: @aretxagoiena
Arrasate: @arrasategoiena
Bergara: @bergaragoiena
Elgeta: @elgetagoiena
Eskoriatza: @eskogoiena
Oñati: @oinatigoiena

GAIK

Ekonomia: @ekonomiagoiena
Hezkuntza: @hezkuntzagoiena
Kirolak: @kirolakgoiena
Kultura: @kulturagoiena
Osasuna: @osasunagoiena
Teknologia berriak: @teknonetgoiena
Goiena Kluba: @goienakluba

**SUSANA
MORCILLO**
MARGOLARIA

GURE ARTISTAK



Susana Morcillo, Antzuolako plazan; ezkerrean, haren margolan bat. | ARANTZAZU EZKIBEL

"Jende nagusia margotu izan dut; esateko asko dute, aberatsak dira"

- ▶ Susana Morcillo Arte Ederrak ikasten dabil Madrilgo Complutensean
- ▶ Margotzea da gehien gustatzen zaiona; olioarekin dabil gaur egun

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA
Antzuolako 25 urteko gaztea da Susana Morcillo. Ilustrazio eta diseinu grafikoko ikasketak egin zituen Gasteizen eta orain Arte Ederrak ikasten dabil. Egiten duenaz berba egin dugu.
Noiztik duzu margotzeko zaletasuna?
Betidanik izan dut artearekiko eta pinturarekiko zaletasuna. Beti margotu izan dut eta gustatu izan zait; esan dezaket gustatzen zaidan gauza bakarrenetarikoa dela margotzea, eta baita

musika ere. Nire alde sentikorra beste alde baina garatuagoa daukat!
Hainbat arlo lantzen dira unibertsitatean. Zein duzu gustukoena?
Pinturan ibiltzen naiz gusturen, baina eskolan denetik egiten dugu. Lehenengo urtean denetik egiten dugu eta gero, gustukoena ditugunak egiten ditugu: orain, plastika, pintura, horrelakoak egiten ditut.
Zer egiten duzu?
Hainbat fase izan ditut. Errealismoa, adibidez, egiten dut; bai-

na ez kopia hutsa, horretarako argazkia dago-eta. Pintura azkarra egiten dut, baina baita errerealismoa ere. Errealismoa egiteko kontzentrazio handia behar da, fintasuna... Hala ere, esan behar da pintura azkarra kalitate bera izan dezakeela.
Pintura azkarra, errerealismoa eta abstraktua uztartuko dituen zerbait bilatu gura dut, guztia nahas dezala, baina modu koherentean.
Zaila da norberaren estiloa aurkitzea?

Bai, estiloa aurkitzea zaila da. Horretarako, asko ibili behar da.

Eta jendeak ulertu egiten du zure artea?

Ba ez, batzuetan ez. Nik normalean heriotza eta denboraren iragana erakusten ditut eta jendea, normalean, ez zaio bate-re gustatzen gai hori. Beste batzuei, ostera, asko gustatzen zaie.

Kultura arloan heziketa falta da?

Espainia mailan ez dago kultura heziketarik. Europan, ostera, bai, badago kultura arloko beste heziketa bat eta, gainera, baloratu egiten dute eta uste dute kultura baliagarria dela gizartearendako.

Margolanak egiterakoan ze teknika erabiltzen dituzu?

Denetarik: akrilikoa, arkatza... Orain, esaterako, olioarekin esperimentatzen nabil.

Kolorea ere sartzen duzu.

Bai; orain arte grisean margotu izan dut, baina orain bizitzako une alai batean nago eta kolorearekin hasi naiz. Kolore bereziak nahasten ditut.

Diozu zure lana heriotzaren inguruan egiten duzula. Zergatik?

Jende nagusia asko margotu izan dut, batez ere azkeneko bi urteetan. Uste dut asko dutela esateko, eta oso aberatsak direla. Bestalde, sozialki abandonaturik daude. Ez da aktibitate sozialik egiten euren dako. Gazteak ere ez dira nagusiekin elkartzen, ez dago tokirik elkartzeko. Plazan jesarrita egoten dira, bizitza zelan pasatzen den begira.

Nagusien begiradak asko esaten du: tristura, melankolia... asko bizi izan dute. Niri, esaterako, heriotzak txunditu egiten nau, inork ez daki zer den heriotza.

Aranjuezen bizi naiz eta han nagusi asko daude. Plazan jesarrita egoten dira eta argazkiak ateratzen dizkiet, gero margotzeko.

Baduzu erreferentziarik?

Golucho asko gustatzen zait. Jende nagusia eta, batez ere, bere ama margotzen duen margolaria da. Eta Klimt ere gustatzen zait.

"Beti izan dut artearekiko eta pinturarekiko zaletasuna"

"Pintura azkarra egiten dut, baina baita errerealismoa ere"

"Golucho eta Klimt asko gustatzen zaizkit"



UDAKO ARGAZKIEN VII. GOIENA LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak



JOLASEAN. 2011ko uztailaren 2an dago aterata, Urbian, Perusaraira bidean. Bertan, nire semea eta iloba azaltzen dira jolasean. /Argazkia: Amaia Lasaga Moyua /Oñati



TXIMELETA. Aurtan ekainean ateratako argazkia. Tximeleta lorearen gainean Urkuluko urtegian. /Argazkia: Adrian Aginagalde /Aretxabaleta



ITSASONTZI BATEN ... laz ateratako argazkia. Rosesko Santa Margarita gunean. Gure alaba txikia da hori, Garazi; nagusia, Lide, eguzkia hartzen zebilen. /Argazkia: Saioa Ojanguren /Arrasate



ARMIARMA. Argazkia aurtan ataratakoa da, Txiapasen (Mexiko). Bertan, lagun horrekin egin genuen topo. /Argazkia: Jaione Oyanguren Zabaleta. /Aretxabaleta

Oinarriak:

- Parte-hartzaile bakoitzeko, gehienez, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta nongoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak jasotzeko epea: uztaila - irailaren 17a.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).

- Bidali argazkiak eta alpatutako datu GUZTIAK argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Oñatiaren Lizentziaduna 31. BERGARA: Ibarra kalea 6 ARETXABALETA: Durana 11, 2. solairua, edo Basabe poligonoa E-0-5.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.

Sariak:

- **1. saria:** Panasonic LUMIX DMC G10 argazki kamera digitala eta KB Photoestudio eskaintzen dituen ikastaroetako batean, %50eko deskontu bonoa Bergarako KB Photoestudio argazki dendaren eskutik.
- **2. saria:** Cantabriaren bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaia-en eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



ANTOLATZAILEA: **goiena**

LAGUNTZAILEAK:



KB
photoestudio
www.kbphotoestudio.com
Panasonic LUMIX

GURE AMETSA
JATETXEA

Diru-zorroez nor jabetu, hasi da guda; Pay Palek ere badu dagoeneko bere sistema

Googlek berea oso aurreratuta dauka, 'Google Wallet', eta kreditu txartel nagusiekin hitzartuta

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Askok Googlek *Wallet*, ingelesez diru-zorro, izeneko sistema aurkeztu bezain laster eskuko diruaren amaiera zetorrela zabaldu zuten lau haizetara. Momentuz horrelakorik ez da espero baina bai, poliki poliki, eta hasiera baten erosketak txikiek, freskagarri lata bat adibidez, gure bizitzetan sartuz joango da ordainketa sistema berria, ziurrenik. NFC delako teknologiarik esker egiten da ordainketa elektronikoa. NFC eremu murrizteko kablerik gabeko sarea da, Bluetootharen

antzerakoa baina bereziki telefono eta gailu eramangarrien beharretara egokitzeko asmatu zuten. 20 zentimetroko irismena besterik ez dauka sareak. Aldi berean datuak bidali eta jaso daitezke sistema honekin. Googlek espero du 2014rako dauden saketako erdiak sistema hau izatea.

Pay Pal ere gertu

Googlek benetan aurrea hartu baino lehen, hasi dira konpainiak euren sistemak aurkezten eta aurreko astean Pay Pal, internet



Telefonoekin "topa" eginez ordaintzen da Pay Palen sistemak. | GIZMODO

bidezko ordainketa sistemarik ezagunenak, berea aurkeztu zuen. Pay Palek dagoeneko Android sistemazko aplikazioa aurkeztu NFC bitartez ordainketak egiteko. Samsung Nexus S mugiko-

rrarekin erabil daiteke, Estatu Batuetan soilik. Mugikorrek elkarren artean "topa" eginda gauzatzeko operazioa, modu oso kurioosoan. Applek, bere aldetik, telefonoari erantzen zaion gailu

txikitxo bat aterako du aurki eta *Square* delako sistema dagoeneko prest daukate, badaezpada ere. Apirilean aurkeztu zuten eta salgai ipiniko dute aurki 10 euroren truke.

E-postaren kutsadura; pantailan hiru minutu baino gehiago emanaz gero, hobe inprimatzea

Uste okerra da, zenbait kasutan, teknologia berriek kutsadura gutxitzen dutela

J.B. | ARRASATE

E-posta batek 19 gramo CO₂ igortzen ditu atmosferara, esate baterako. Ademe agentziarik egin du neurketa. CO₂ igorpenak gutxitze aldera, gomendatzen dute pantaila parean orri batek 3 minutu baino gehiagoko irakurketa denbora hartzen badu, hobe dela orria bera paperean inprimatzea.

E-posta bidez bidalitako mega batek 19 gramo CO₂ igortzen ditu Frantziako Ingurugiro eta Energiaren Kontrolerako Agentziak jakinarazi duenez. Mezu elektronikoko bakarrari dagokio zifra hori, ze, adibidez, mezu bera, beste 10 jasotzailerik bidaliz gero, igorritako CO₂ kopurua 73 gramokoa da. Datuak biderkatzen jarraituta, hala, 100 behargineko enpresa baten, batz bestea laguneko 33 mezu bidaltzen badira egunean eta 58 jaso (Frantziako datuak dira), urteko 220 lanegunetan, guztira 13,6 tona CO₂ igorriko lirakeke, guztira, urtean. Mundu osoan, eguneko 250.000 posta elektronikoko bidaltzen dira eta e-postaren gehiengo zaborra da, hau da, spam-a. Neurtze sistema hori agentziak berak sortu du

eta aztertu dute idazketak, bidalketak, banaketak eta, amaieran, irakurketak eragiten duen energia-kostua. Horrez gain, prozesu hori guztia bete dadin erabiltzen diren gailuen fabrikazioan igorritakoa ere hartzen da aintzat.

Fitxategiak kanpoko biltegi-ratze memoria baten gordetzea ere, USB giltza, kasu, ez da kutsatze arriskutik kanpo geratzen. Datu bitxia ematen dute kasu honetan eta gomendatu kasuan kasu, balitekeela paperean inprimatzea ekologikoagoa izatea. Izan ere, 200 orriko dokumentu baten kasuan, eta kontuan hartuta orriko batz beste 2 minutu eta 12 segundo behar direla, kasu honetan paperean inprimatzea gomendatzen dute, CO₂ igorpenak gutxitu gura badira. Arau orokorra da, pantaila aurrean irakurtzen 3 minutu baino gehiago egin behar badira, hobe dela dokumentua paperean inprimatzea. Pantaila aurrean emandako orduak kutsagarriak dira ikerketaren arabera. Interneteko erabiltzaile batek batz bestea Frantziako 2,6 bilaketa egiten ditu egunean eta nahi duen emaitza lortu arte 5 orri pasatzen ei ditu.

Google+ sareak 10 milioi erabiltzailetik gora du jadanik

J.B. | ARRASATE

Wave eta Buzz-ekin porrot egin zuen Googlek baina baliteke oraingoan Facebookekoak urduritzen hasita egotea bilaketan handikiaren sare berriak eragin dituen kritika on eta onarpen zabala ikusita. Are gehiago, oraindik probatan eta gonbidapen bitartez dabilenean.

Arrakastaren gakoak

Sare sozialetan ezin asmatu ibili izan da Google orain arte baina sare sozial berriekin bide onean dabilela ematen du. Kontaktua interes ala harreman zirkuluetan antolatuta eta zerbitzu gehigarriak erantsita (mezularitza WhatsApp ezagunaren estiloan ala taldeko bideo-txatak), zeresana eta interesa piztu dute. Facebookek, noski, egurra ematen du oraindik zifretan, 750 milioi profil dauzka, baina Google+ek aste pare baten lortutakoa ere ez da ahuntzaren gauerdiko ez-tula.

Algoritmoa

Halere, zenbaki ofizialik ez dute kaleratu Googlekoek, erabiltzaile batek sorturiko algoritmo batekin kalkulatu da kopurua. Egiaztatuz gero, inoiz sare sozial batek bere hasierako asteetan izandako hazkunderik handiena da eta litekeena da zenbaki ofizialek hori berrestea.

Egun bakarrean aldatu ahal izango da mugikor konpainiaz 2012ko apiriletik aurrera

Telefonia mugikor konpainiaz egun batetik bestera, 24 ordutan, aldatzea egongo da 2012ko ekainetik aurrera. Lehiakortasuna sustatu eta merkatua dinamizatzeko heburuarekin hartu du erabakia Telekomunikazioen Merkatu Batzordeak eta *portability* deritzon prozesuak soilik egun bateko iraupena izango du. Espainiako Estatua izango da neurria ezartzen lehena, hain zuzen. Esate baterako, bezeroak konpainia aldatzea astelehenean eskatzen badu, eguazteneko goizeko 6:00etarako burutuko litza-teke. Aldaketa baliogabetzeko, oster, astia izango luke martitzeneko arratsaldeko 14:00ak arte. Horretaz gain, Telekomunikazioen Batzordeak adierazi du telefono finkoetarako neurri bera ezartzea aurreikusten dutela lehenago ala geroago.

MiniDisc walkmanak fabrikatzeari utziko dio Sonyk, 1992tik merkatuan egon eta gero

Iaz Walkmanarenak egin eta aurretik MiniDiscari esan diote agur Sonykoek. Cassetten desagertzea eragiteko asmoarekin merkaturatu zuten lehena 1992an etan 2004 HD formatua kaleratu zuten, 45 musika ordu gordetzeko ahalmenarekin. Hala ere, inoiz ez du formatuak zabalpenik lortu eta batez ere Japonian eta Ekialdeko herrialdeetan izan zuten onarpenik handiena, garairik onenetan.



Azken modeloa. | SONY

Androidek erabiltzaile gehiago ditu Applek baino baina azken honek irabazi handiagoak ditu

Mugikorretako sistemen eta aplikazioen lasterketan elkarri mokoka dihardute bi etxe nagusiek. Azken datuen arabera Googlek Android sistemak erabiltzaile gehiago ditu eta ondorioz aplikazio deskarga gehiago baina gehienak doakoak izatera, Applek negozio eredu errentagarriagoa da oraindik orain. Telefonoei dagokienez, oraindik ere *smartphone*en salmenten irabazien %50a sagartxoaren konpainiak patrikaratzen du. Iaztik hona, hala, %61a igo dira AppStore delakotik eginiko aplikazioen deskaragak eta Androidekoekin konparatuta, nahiz eta deskarga gehiago izan, erabiltzaileek horientatik %14 gehiago ordaintzen dute. Nabarmenezko da, baita ere, Applek aplikazioen prezioak ere garestitu egin direla iaztik hona eta Androiden kasuan %97 doakoak direla aurtengo apirilko azken datuen arabera.

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Claudia Diaz de Mendibil Azkoitia
Uztailaren 25ean, 5 urte. Zorionak, potxola! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bana; Alba, Naroa eta Uxue.



BERGARA
Sherezade Moreno
Uztailaren 23an, 28 urte. Zorionak, amatxo! Egundou eta opari asko-asko jasotzia! Muxu potolo bat etxekuen partetik, bereziki Uxue eta Kenar.



BERGARA
Eider Ormaetxea Inza
Uztailaren 23an, 37 urte. Zorionak, marimatraka! Ederto pasatu eguna, muxu pila-pila patata eta tortilla, Zarugalde kaleko lehengusu-lehengusinare partetik. Patxoak, guapisima!



OÑATI
Izaskun Bolinaga
Ekainaren 23an urtebetetzea. Zorionak lxsas! Fan biharko gare ba Madalenako jaixetara, zelebretara ez? Kategorixako marianito zurixak preparatzen dittuzte bertan! Peña Karapaixo.



ARRASATE
Isa Guerra Cordero
Uztailaren 23an, 41 urte. Zorionak, guapisima! Ederto pasatu eguna familiarekin, seguru edozein hondartzatan morena-morena jartzen zaudela. Muxu erraldoi bat laguntxo guztien partetik. Patxoak!



ESKORIATZA
Aintzane Ortiz Simal
Uztailaren 22an, 8 urte. Zorionak, poxpolina! Egundou eta ona pasa dezazula opa dizugu familia guztiak, bereziki Aimar, Irune, Ibai eta Laurak. Merendola ona eta pila bat prestatu, dena jateko asmotan joango gara-eta. Muxu txoko-marrubizkoak!



ARETXABALETA
Markel Belategi Martinez
Uztailaren 22an, urtebete. Etxeko lasaiak urtebete egiten du! Primeran pasatu eguna eta Lorea, Aratz, Hodei, Goiatz eta Maddirekin asko jolastu.



ARRASATE
Danel Lorenzo Bruña
Uztailaren 22an, 2 urte. Zorionak, pirata! Ondo pasatu zure bigarren urtebetetzean. Muxu pila bat aitaxo eta amatxoren partetik.



OÑATI
Leire Aranburu
Uztailaren 20an, 12 urte. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu eguna eta toperaino disfrutatu. Patxo handi bat etxeko danan partetik!



ESKORIATZA
Aina Andetxaga Korujo
Uztailaren 19an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Egundou pasatu aita, ama eta Gentzeneren partetik.



ESKORIATZA
Amaiur Isasmendi Martinez
Uztailaren 19an, 5 urte. Zorionak, gure gitana. Ama, aita eta Galderren partetik muxu goxo bat zuretzako.



OÑATI
Iker Serrano Lopez
Uztailaren 19an, urtebete. Zorionak, maillia! Muxu handi bat gurasoen eta bestelako senideen partetik.



OÑATI
Markel Altube Ayesa
Uztailaren 19an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Zure urtebetetze egunean oso ondo pasatu, artista. Zorionak zure amatxo, tia Leire, tio Egoitz, amandria eta Unaxen partetik. Musu pototo bat.



ANTZUOLA
Aiora Legorburu Rodriguez
Uztailaren 18an, 6 urte. Zorionak, Aioia! Amaiur eta gertuko danon partetik. Gaur behintzat txintxo portatu mese.



ARRASATE
Ane Rincon Madinabeitia
Uztailaren 18an, 5 urte. Zorionak, potxola! Marrubizko muxu potolo bat etxekoen partetik.



OÑATI
Amaia Axpe eta Miren Aberasturi
Uztailaren 18an, 2 urte. Zorionak, polittak! Muxutxo goxo-goxo pila bat danon partetik bixontzako. Muaka, muaka!



ARETXABALETA
Beñat Larrañaga Madinabeitia
Uztailaren 18an, 7 urte. Aupa, txapeldun! Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik. Ea zure egunean horrelako opari bat egiten dizuten!



ARAMAIO
Oihan Azkarate Ariolabengoa
Uztailaren 18an, 6 urte. Zorionak, krak! Sei urte, txapeldun! Ondo-ondo pasatu, maitxi, eta muxu potolo bat danon partetik!



ARETXABALETA
Nahia Diez Garzia-Etxabe
Uztailaren 18an, 4 urte. Aupa, txapeldun! Zorionak etxeko guztien partetik eta ondo-ondo pasatu zure laugarren urtebetetzea.



ARRASATE
Maddalen Agirre
Uztailaren 17an, 15 urte. Zorionak, printzeza! Ondo ospatu eguna eta pastelxo batzuk gertatu. Aitaxo, amatxo eta Leire.



BERGARA
Maram El Berdi
Uztailaren 17an, 3 urte. Zorionak eta patxo handia familia guztien partetik!



OÑATI
Oier Sancho
Uztailaren 16an, 10 urte. Zorionak, mutikote! Jadanik 10 urte. Muxu handi bat etxekoen partetik.



ARETXABALETA
Ainhitz Larrinaga Aranburu
Uztailaren 15ean, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure seigarren urtebetetzea eta txokolatzeako muxu pila zuretzat etxeko eta familiako danon partetik.



BERGARA
Lander Tena
Uztailaren 14an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Musu handi bat etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Jon Regaño
Uztailaren 14an. Eperren kantua entzun dugu gaur egunsentian, eta beraien kantutxoak zihoen urteak zoriontsu bete ditazula. Oso ondo pasatu zure egunian, ez ahaztu traguak eta Suitzako txokolatia zure kontu. Oihana, Liheta Itzieren partetik.




OÑATI
Luka Galdos Etxeberria
Uztailaren 14an, urtebete. Gure Lukak urtetxo bat bete dau! Zorionak, pottoko!



OÑATI
Luisa Hernandez
Uztailaren 14an, urtebetetzea. Zorionak, amama! Ondo-ondo pasatu eguna! Holako guapa jarraitu dezazula! Muxutxo asko etxeko guztien partetik, baina bereziki bi txikitxuen partetik, Mario eta Enzo.



OÑATI
Idoia Arregi Telleria
Uztailaren 14an, 27 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu gaurko eguna! Patxo handi-handi bat etxekuen partetik!



ARAMAIO
Nerea Guerrero Bermejo
Uztailaren 13an, 3 urte. Zorionak Aramaioko lagunen partetik.



OÑATI
Unax Zelaia Lazkano
Uztailaren 13an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bana amama, aitita, tio eta tiaren partetik.



ARETXABALETA
Nora Toledo Gallego
Uztailaren 13an, urtebete. Zorionak, Nora! Muxu handi bat aitaxo, amatxo eta Janiren partetik, zure lehenengo urtebetetzean.



ARRASATE
Iñaki Gurrutxaga, "Harristi"
Uztailaren 13an, 51 urte. Zorionak, Harristi! H.F.K. kuadrilaren partetik. Guapo eta argala etorri zare Iruñatik, eh! Ondo pasatu eguna.



ARRASATE
Iradi Unamuno
Uztailaren 13an, 5 urte. Zorionak eta ondo pasatu. Patxo handi bat danon partetik.



ARRASATE
Nerea Valladolid Arana
Uztailaren 12an, 25 urte. Zorionak eta urte askotarako, Nere! Zure familia eta lagun guztien partetik. Mila muxu!



OÑATI
Aiuri Umerez Madinabeitia
Uztailaren 12an, 3 urte. Zorionak, neska handi! Muxu potolo bat eta ondo pasatu zure eguna, etxeko danon, eta bereziki Izaro, Ekain eta Heleneren partetik.



ARRASATE
Hodei Pascual Belategi
Uztailaren 12an, 2 urte. Etxeko piratak bi urte dagoeneko! Ondo-ondo pasatu eta jostailuak Aratzekin konpartitu. Besarkada bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Iraia Loiti
Uztailaren 12an, 5 urte. Zorionak, Mari Matraka! Milaka kilo zorion eta patxo potolo Oihan, Imanol eta Eleneren partetik.



ELGETA
Markel Larrañaga Mandaluniz
Uztailaren 10an urtebete. Zorionak, Markel! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzian. Muxu handi bat etxekuen partetik.



ARETXABALETA
Oinatz Zabala Frutos
Uztailaren 9an, 4 urte. Zorionak, bihotza! Jada 4 urte. Ederki ibili gara zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat. Iraide, aitaxo eta amatxo.



ARRASATE
Oihan Loiti Iraola
Uztailaren 2an, 8 urte. Zorionak, saltsero! Mila kilo zorion eta patxo Elene, Imanol eta Iraieren partetik.

Zorionak!

Internet
Sar zaitez goiena.net atariko Zorion agurren tartean. Aukeratu herria eta bete datuak.
Posta
Mezu bat bidali zorionagurrak@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitez GOIENAKo ordezkaritza batera.

JAIOTAKOAK



Araitz Llodio Azkarate

Arrasate 3,790 kilo. Uztailaren 11. Gurasoak: Nagore eta Illart. Argazkian, umea lotan.



Hegoa Antero Grefa

Aretxabaleta 3,150 kilo. Uztailaren 11. Gurasoak: Ana Veronica eta Ibon. Argazkian, gurasoekin.



Irene Gamboa Zubiria

Aretxabaleta 4,090 kilo. Uztailaren 8a. Gurasoak: Amaia eta Igor. Argazkian, Irene amandrearekin.



Jurgi Elorriaga Martin

Elgeta 3,500 kilo. Uztailaren 9a. Gurasoak: Laura eta Unai. Argazkian, Jurgi amarekin.



Unax Osinaga Elexpuru

Arrasate 3,940 kilo. Uztailaren 9a. Gurasoak: Nagore eta Jon. Argazkian, Unax amarekin.



Ibai Amutxategi Zubizarreta

Arrasate 4,530 kilo. Uztailaren 11. Gurasoak: Olatz eta Iñaki. Argazkian, Ibai aitaita eta amamarekin.



Iraitz Arrieta Zubielki

Arrasate 3,230 kilo. Uztailaren 13a. Gurasoak: Ione eta Haritz. Argazkian, Iraitz gurasoekin.



Julen Carrasco Navarro

Arrasate 3,630 kilo. Uztailaren 7a. Gurasoak: Alicia eta Manu. Argazkian, Julen amatxorekin.



Maier Aiastui Acha

Arrasate 2 kilo. Uztailaren 13a. Gurasoak: Ana eta Edorta. Argazkian, Maier amatxorekin.



Manex Eguren Garmendia

Bergara 3,5 kilo. Uztailaren 13a. Gurasoak: Ane eta Beñat. Argazkian, Manex aitatxo eta amatxorekin.



Peru Uriarte Pagonabarraga

Elorrio 3,100 kilo. Uztailaren 13a. Gurasoak: Ione eta Txaber. Argazkian, Peru gurasoekin.



Ander Erana Urieta

Aretxabaleta 3,400 kilo. Uztailaren 13a. Gurasoak: Bego eta Joxe. Argazkian, Ander amarekin.

BABESLEA



IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Diru	Jubilazioa	Operazioa
	* Kroaziako hiriburua	Gerra	Oldar
	Oiloei deitzen hitza		
	Bilatzaile		
Jauzia, dantza	Illoak		
Fruitu emaille	Uretako		
Uhartea		Edari bizi	
Aterpe		Musu	
			Kontso-nantea (Zah.) Zakur
Errep., barrea		... oton, ezustean	
Harira		Bokala	

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.




SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	R	V	T	E	R	A	K
Z	O	I	O	R	K	A	R
T	E	P	L	A	S	T	E
N	O	R	L	A	I	L	E
U	S	T	U	T	F	R	I
K	A	K	E	A	B	I	D
R	A	P	U	R	A	T	
B	E	Z	A	G	R	E	
E	E	K					

BILA-BILA 7



Urrezko hortzak jartzearen pareko

Dolarraren, aberastasunaren ikurra 4 zenbakiaren tekla dago. Hori azpimarratzeko, zer hobeto tekla urrezkoa izatea baino? www.nopuedocreer.com



"Petroetaraino nago... Burutik eginda nago"

JOSE BONO | KONGRESUKO PRESIDENTEA

Ez da lehenengo aldia irekita dagoen mikrofono batek entzun behar ez direnak lau haizetara zabaltzen dituela, eta horixe gertatu zaio Bonori. Kongresuko saio luze baten ostean bota zuen esaldia; seguru hark ere esker-tuko dituela abuztuko oporrak. www.lavanguardia.com



Max. 25°

Min. 11°

Giro nahasi eta aldakorra, gaur: eguerdira arte, hobetzen; baina gauerako, euria. webgunea.netxxxx

goiena

2011-07-18

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

Andrea Arrizabalaga Hasieran erreportari eta orain aurkezle, galdakoztarra gauero gauero-sartzen da gure etxeetan eguneko albiste onen eta txarren berri emateko. | TXOMIN MADINA

"Kaleko lana faltan igartzen dut; espero dut bueltatzea"

1. Elkarrizketatzailea elkarrizketatu. Eroso egoten zara halakoetan?
Ezeroso ez; baina hasieran arrosa egiten zitzaidan. Dagoeneko ohitu naiz. Elkarrizketaren ostean, kazetariaren azalean jartzen naiz: erantzun onak eman ditudan, titularren bat...

2. Kaletik platora egin zenuen. Alderantzizkoa egiteko arazorik?
Ez. Oronen gainetik kazetaria naiz; kalean beste era bateko adrenalina sentitzen duzu, eta batzuetan faltan igartzen dut. Espero dut, benetan, bueltatzea.

3. Teleberri, binaka ala banaka?
Binaka lana errazagoa da; batzuetan, hobe da. Banaka, nire kasuan, baita Asierrenean [Ormazabal] ere, kontzentratuago zaude; *Teleberri* zurea da. Nahiago binaka; eta Asierrekin, primeran.

4. Albistegiek, zenbat dute informazioetik eta zenbat ikuskizunetik?
Kate batzuk nahiko sentsazionalistak dira; batzuetan, gehiegi. Guri ere esaten digute: "Audienciak hala eskatzen du", eta, tarteka, horrenbeste politika eta krisirekin eskertzen dira albiste anekdotikoagoak.

5. Badago ekonomia kontuak interesgarri egiteko modurik?
Zaila! Horretarako albistegi erakargarriak egin behar dira; zuzeneko oso zalea naiz. Adituei elkarrizketak egitean esaten nien: "Kontatu zure amamari kontutuko bazenio bezala".



JON POZO

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Alde onaz disfrutatuko nuke"

"Ajuria Enean biziko nintzateke eta gaur egun baino lanpetuagoa egongo nintzateke. Eta lan horren guztiaren artean, Euskal Herriko kultura eta nortasuna zabaltzen disfrutatuko nuke gehien; hori izango litzateke lanaren alde onena. Lan zaila iruditzen zait; hortaz, gozatu egingo nuke, eta gero, gerokoak".

6. Erasorik egin dizu barreak zuzenean?

Bai, beti momentu ez aproposetan; esaterako, Alakranari buruz berbetan. Askotan da pantailan ez ikusi arren, platoan gertatzen diren kontuengatik. Asierrek erakutsi zidan truku bat: azazkalak hatzamarrean sartzea.

7. Serio itxura izan arren, imitatzaile ona zarela entzun dugu...

Egia da hasieran serio samarra ematen dudala; batek baino gehiagok esan dit hori, baita Asierrek ere. Hori bai, behin ezagututa uste dute guztiz ezberdina naizela. Eta bai, imitazioak egiten ditut... Hobe to esanda, egiten nituen.

8. Katuek ez dute sinpatiko fama, baina zuk bat duzu.

Oso animaliazalea naiz; hau dudan bigarren katua da, *Goku*. Maitasun eta konpainia handia ematen dit; oso dibertigarria da, beti ikertzen dabil eta leloen pare egoten naiz begira. Nahiago dut animaliak erosi baino gehiago adoptatu.

9. Euskara ETBn ikasi omen duzu. Nola hain azkar eta hain ondo?

Euskaltegian eta barnetegian ibili arren, nire barnetegi onena Euskal Telebista eta lankideak izan dira. Ahoskerarekin, esaterako, asko lagundu didate.

10. Nola doa Ingeles Filologia?

Duela 5 urte hasi nuen. Gero, utzi arren, aurten berriz hartu dut. Oso nota onak atera ditut. Asko gustatzen zaizkit hizkuntzak.



MARIA AGIRRE

Tiriten ordez haria?

Ekonomiaz ez dut askorik ulertzen, baina teoria askorik jakin beharrik ez dago ekonomia gaizki doala jakiteko. Hori erakusten digute gaur bai eta bihar ere bai egunkarietan irakurtzen ditugun izenburuek. Zein baino zein beldurgarriagoak dira. Beldurraren gizartean bizi gara, edo bizi arazi nahi gaituzte behintzat. Beldurrak blokea gaitzan. Ikararen ikaraz, beste aldera begiratu eta ni behintzat ondo nago esatea, edo hau aldatu beharra dago pentsatzea. Horiek dira bi aukerak.

Pasa dira hiru urte krisia hasi zenetik, eta ordutik zauria areagotu baino ez da egin. Bizkor konponduko zela zioten, baina antzik ere ez diote hartzen. Argi dagoena da orain arteko tiritek ez dutela ezertarako balio izan, eta are okerragoa dena, agintzen dutenek tiritak edo esparatruak jartzea baino ez dutela buruan. Hatuko al dituzte noizbait haria eta jostorratza!

Proposamenak badira, asko beharko dira eta ausartak, gainera. Horietako bat lana banatzearena. Aldizkari honetan bota zuen Koldo Saratzagak. Hori ote da haria hartu eta josten hastera?

Aretxabaletan, Txarapeako etxeetarako eskaintza berezia

IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

OPARIA
Indukzio-plaka
uztailaren
15a arte

